ASTELEHENEKO
Goienkaria

2010eko urriaren 25a > Astelehena > VII. urtea > 295. zenbakia > 1,10 euro

Goiena 10 URTE Komunikazio Zerbitzuak · www.goiena.net · TOKIKOM

"Norbera eta ingurukoak hezten laguntzeko prestakuntza emango dugu"

Begoña Gomez Baketik-eko arduraduna > 05

ISTRIPUA
Motorzale bat, 35 urtekoa, hil egin zen zirkulazio istripuan > 04

DEGURIXA
Desafioan berdindu egin zuten Aretxabaletak eta Eskoriatzak > 12

ARIZMENDI
Arrakasta handia izan zuten ikastolaren ekintzek > 13, 22-23

TXAPELKETA
Giro bikainean ibili ziren 18 talde bolo jokoan Elgetan > 21

JENDARTEA > ODOL EMAILEAK

Datozen hiru urteetan beste 3.000 odol emaile beharko dira

ELGETAN Antzuola, Bergara, Oñati eta Elgetako 83 odol emaile omendu zituzten atzo, domeka, Espaloian

DEBABARRENA Denetara, 165 lagun batu ziren Espaloian, eta 190 intsignia banatu ziren; omendu batzuk ez ziren joan

DEIA Gipuzkoako odol emaileen presidenteak jendeari dei egin zion boluntario egin dadin, emaile gehiago behar delako > 04

LITERATURA > SARIA

Etxegoien, Euskadi Sariduna

'Autokarabana' eleberriarengatik Euskadi Saria jasoko du Fermin Etxegoienek > 05

"Nintendoa eta Wii-a baino hobea da!"

Bergarako Txotxongilo Mostrak lortu du helduak eta umeak erakartzea, magiaz eta fantasiaz betetako ikuskizunekin > 33

ANTZERKI TXIKIA San Martin plazako *teatrino* edo antzerki txikiak izan ziren umeen ekintza kutuna. JOSETXO ARANTZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-07
Elkarrizketa > 08
Iritzia > 10
Herriak > 11-20
Kirola > 21-27
Kultura > 29-33
Sailkatuak > 34-35
Denbora-pasak > 36
Telebista-irratia > 37
Berri-zakua > 38-39

AHT Gelditu! Elkarlaneko kideak, margoa bota eta gero. MONDRABERRI

INGURUMENA > PROTESTA

Ibaia berde jaitsi zen AHTren aurka

Arrasaten, Oñatin, Bergaran eta Aramaion, ibaia berde kolore biziz margotuta agertu zen atzo eta, leku batzuetan, kartel batzuk ere agertu ziren. AHT Gelditu! Elkarlanak egin zuen, AHTren eragina salatzeko. > 04

Danbakako packa opari. Nahi?

Zoaz 3. orrialdera

Oñatin Iban Telleria dabil taldetxo bat sortu nahian; Murgia auzoan du baratzea.

MIRIAN BITERI

Gaizka Olabarrieta arrasatearra, Angiozarko Zulueta baserrian duen ortuan.

EKONOMIA > LEHEN SEKTOREA

Kontsumo taldeak hedatzen hasi dira Debagoienean

HIRU TALDE BERRI Bergaran, Oñatin eta Aramaion lanean dihardute, elikagaien autogestiorako, baserritarrak eta kontsumitzaileak batzen

BULTZATZAILEA Aramaion eta Bergaran herritarren eskaerari erantzunez jarri dute martxan egitasmoa udalek; Oñatin baserritar bat dabil horrekin

MIRIAN BITERI > BERGARA

Kontsumo taldea delakoa apurka-apurka bailaran barneratzen ari den terminoa da. Orain arte Arrasaten baino ez dira horrelako taldeak eratu; hori, dena dela, aldatzear da, Debagoieneko beste hainbat herritan taldeak sortzekotan dabiltza-eta.

Baina zer da kontsumo talde bat? Baserritarren eta herritarren arteko elkarlanean oinarritzen da, elikagaien autogestiorako. Tokiko baserritarrengandik zuzenean barazki eta bestelako produktuak jasotzean datza, bitartekaririk gabe. Horren bidez, baserritarrak astero kontsumitzaileari aurretiaz zehaztutako kalitatezko produktuekin betetako otarrea eroateko konpromisoa hartzen du; kontsumitzaileak, ostera, denboraldi batean otarrea jaso eta ordaintzeko konpromisoa hartzen du. Otarrean denetarik aurki dezakegu: besteak beste, barazkiak, esnea, ogia, ezti eta gazta; dena, jasotzaileak zehaztutako neurrian.

ARRASATEN OSO POZIK

Esan bezala, joan den urtean ekin zioten horri Arrasaten. Askasibar baserriko Rakel Perez de Arenatza eta Angiozarko Zulueta baserrian ortua duen Gaizka Olabarrieta hasi ziren, bakoitza talde banarekin; urte bat baino gehiago pasa da martxan jarri zutenetik eta balorazioa "oso positiboa" dela esan digute. Perez de Arenatzaren arabera, "dena ondo irten da. Jendea pozik dabil. Taldean 20 pertsona daude; itxaron zerrenda dut, baina nik ezin dut jende gehiagorik hartu. Bergararrak eta oñatiarrak ditut eta zain nago herri horietan ea taldea eratzen den; nor bere herrian geratzen bada, Arrasateko jende gehiago sartu ahal izango dugu taldean".

Olabarrietak ere debagoiendarrak ditu taldean: "20 familia ditut; horietatik, 13 arrasatearrak dira, lau bergararrak eta hiru oñatiarrak. Lehengo urteko 10 familia ditut. Iaz 11 familia nituen; batek baja eskatu zuen bikote bat zelako eta ez zuelako otarrea husteko afi-

M.B.

Pedro Alberdi, Bergarako proiektuaren bultzatzailea. ARANTZAZU EZKIBEL

na jaten. Aurten beste 10 familia gehitu dira; oso gustura daude.

Olabarrietak eguaztenetan banatzen ditu otarreak eta Perez de Arenatzak martitzenetan. Lehena barazkiak eta orain frutak saltzen hasiko da; bigarrena, barazkiak, ogia, esnea eta jogurrak. Udalak merkatu plazan dagoen lokal bat utzi die, eta han uzten dituzte otarreak; bezeroak sartzen dira eta saskietan dagoena hartzen dute.

ARAMAION, HILABETE BARRU

Arrasaten izandako harrera ikusita, orain Oñatin, Bergaran eta Aramaion taldea osatzekotan dabiltza. Azken bi herri horietan udalak dabiltza bultzatzen. Aramaioko sustatzaile Aitor Larrañagak esan digu azarorako lehenengo otarreak banatzen hasteko asmoa dutela; garaiko barazkiekin egongo dira osatuta horiek.

Gogorarazi du landa garapena sustatzea helburu duen *Baserri-barri* proiektu zabaleraren barruan dagoela taldea eratzea. "Udalak eskatuta, baserritarrekin eta kontsumitzaileekin hitz egiten hasi naiz. Harrera ona izan du, dagoeneko interesa duten bederatzi kontsumitzaile daude; dena dela, martxan jartzen denean ahoz aho joango da zabaltzen. Bestalde, baserritarrak ez dira falta, denetik ditugu parte hartzeko gertu", dio.

LEINTZ BAILARAKOEI DEIA

Oraindik izena eman daiteke; Larrañagak nabarmendu du edozeinek eman dezakeela izena eta ez dela aramaioarra izan behar. Horren harira, deialdi berezia egin die Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagakoei. Interesatuek 625 70 63 74 telefono zenbakira dei dezakete edo *larraaitor@hotmail.com* helbidera idatzi.

Asteon amaituko da izena emateko aukera, eta jarraian kontsumitzaileekin harremanetan jarriko da Larrañaga. Baserritarraren bila joango dira jarraian, eta baratzeak bisitatu. Horren ostean, baserritar bakoitzaren balorazioa egingo dute kontsumitzaileek eta otarrea betetzeaz arduratuko den baserritarra aukeratuko dute. Bi aldeen arteko batzarra egiteko unea iritsiko da orduan, taldeak zelan funtzionatuko duen zehazteko eta, bide batez, hileko kuota jartzeko. Larrañagak gaineratu du bestelako produktuekin gauza bera egitea ere pentsatuta dutela.

ESANAK

"Aurten 20 familia ditut; horietatik 13 arrasatearrak dira, lau bergararrak eta gainerako hirurak oñatiarrak"

Gaizka Olabarrieta > Baserritarra

"Ekimenak harrera ona izan du, dagoeneko interesa duten bederatzi kontsumitzaile daude Aramaion"

Aitor Larrañaga > Teknikaria

"Bergaran kontsumitzaileen eskaerari erantzuteko arazoak ditugu; baserritarrak behar ditugu"

Pedro Alberdi > Teknikaria

"Honetaz bizi nahi dut eta taldetxoa sortzen nabil astiro. Oñatin Arrasateko baserrietan erosten ari diren bost familia daude"

Ibai Telleria > Nekazaria

BERGARAN BASERRITAR FALTA

Bergaran ere lanean dihardute Basherri izeneko taldea eratzeko. Herritarren eskaerari erantzunez, Udala dabil hori bultzatzen. Joan den eguen iluntzean egin zuten horren gaineko batzarra. Taldearen filosofia, jatorria eta dinamika azaldu zituzten bertan, eta zerrendatxoa osatu.

Proiektua bultzatzeaz arduratzen den Pedro Alberdiren esanetan, "hurrengo pausoa izango da izena emandakoekin bilera egitea eta taldea sortzea; azarorako gertu egon daiteke. Eskaera handia bada, horri erantzuteko arazoak ditugu. Baserritarrak behar ditugu; gehienek kanpoan egiten dute lan. Gure helburua da baserritarrak baserrian finkatzea eta horretaz bizi ahal izatea. Horretarako oso inportantea da bserritik bizi izan den jendearengana iristea".

OÑATIN, NEKAZARI BATEN IDEIA

Bestalde, Oñatin nekazari batek hartu du taldetxoa egiteko ardura. Murgia auzoan ortua duen Iban Telleria da hura. Hark dio uztailean hasi zela baratzea martxan jartzen eta laster hainbat produktu eskaini ahal izango dituela, hala nola letxuga, eskarola, zerbak eta porruak. Hauxe dio: "Honetaz bizi nahi dut eta taldetxoa sortzen nabil astiro. Arrasateko baserrietan barazkiak erosten ari diren bost familia daude Oñatin; horiekin harremanetan nago eta azaroan saltzen hasten naizenean niri erosten hasiko dira. Asmoa da oñatiarrek bertako produktuak eros dezatela".

Bestalde, salatu du azkenaldian baliabide guztiak industriara bideratu direla eta nekazariak esan du "okerrena" lurra lortzea dela. Telleriak esan du "asko" poztuko litzatekeela Oñatiko beste hainbat baserritar sartuko balira, lana "denondako" delako. Interesa dutenak Telleriak Murgia auzoan duen baratzetik pasa daitezke.

Odola emateagatik omendu zituzten boluntarioak, Espaloian. JOSETXO ARANTZABAL

JENDARTEA > OMENALDIA

Bailarako 83 lagun omendu dituzte odola emateagatik

Antzuola, Bergara, Elgeta eta Oñatiko odol emaileez gain, Debabarrenekoak ere omendu zituzten

AMAIA TXINTXURRETA > ELGETA

Domekan 165 odol emaile bildu ziren Elgetan eta 190 intsignia banatu zituzten. Omenduak Antzuola, Bergara, Elgeta, Oñati eta Debabarreneko herritarrak izan ziren.

Zilarrezko intsignia jaso zituzten 113 pertsonetatik 50 izan ziren debagoiendarrak; urrezkoa jaso zituzten 60 lagunetatik, 25; eta odol emaile bikainei banatu zitzaizkien 17 sarietatik, 8 izan ziren debagoiendarrei emandakoak. Eguerdian banatu zituzten sariok Espaloian eta omenaldiaren ostean, bazkaria izan zuten. Giro ederrean igaro zuten eguna.

ODOL EMAILEEN BEHARRA

Xabi Urzelai Gipuzkoako odol emaileen presidenteak azpimarratu zuen ezinbestekoa dela odol emaileen kopuruak gora egitea: "Gaur egun 17.500 odol emaile gaude Gipuzkoan eta hemendik hiru urtera beharrezkoa izango da, gutxienez, 20.000 odol emaile egotea. Horrek esan nahi du Gipuzkoako 100 biztanletik hiru odol emaileak izan beharko garela". Bereziki nabarmendu zuen gazte jendea behar dutela odola emateko eta, horretarako, dagoeneko kanpaina batzuk martxan jarri dituztela.

Urzelai presidenteak gaineratu zuen laster odola emateko legeetan aldaketa batzuk egongo direla eta nekezagoa izango dela odola ematea, izan ere, odol emaileek baldintza gehiago hartu beharko dituzte kontuan donazioa egin aurretik. Beraz, odola emateko zailtasun gehiago jarriko direnez, boluntario gehiagoren beharrean daude.

DATUA

190

INTSIGNIA

Guztira 190 intsignia banatu ziren: 60 urrezko; 50 odol emate egin dituztenei, 113 zilarrezko; 25 odol emate egin dituztenentzako eta 17 berezi; 75 odol emate egiteagatik.

ESANAK

"Odol emaile gehiago behar ditugu; hurrengo hiru urteetan 3.000 odol emaile gehiago izatea beharrezkoa da"

Xabi Urzelai > Presidentea

ZER DIO ARRASATEKO GAZTETXEAK?

ZER DIOTE PRESOEN SENIDEEK?

UNED BERGARA

IKASTAROAK

- **MINTZAPRAKTIKA INGELESEZ**
  Erdi-mailako ezagupena dutenentzako
  Hasiera: azaroak 10.
  Klase eguna: asteazkena
  Ordutegia: 18:15 - 20:45
  Matrikula epea: azaroaren 5era arte

Informazio gehiagorako:
Tel.: 943 76 90 33
info@bergara.uned.es

ISTRIPUA

Bizia galdu du Antzuolan bizi zen motozale batek

Zapatu iluntzean gertatu zen istripua Oñatin

MAIDER ARREGI > OÑATI

Istripu larria gertatu zen zapatuan 19:30ean, Oñatin. Herrizaingo Sailak emandako informazioaren arabera, ezbeharrean, Suzuki GSX1300 motozikleta bat errepidetik irten egin zen Oñatin, Zubillaga auzoan, Bergarako noranzkoan. Gidaria, 35 urteko gizonezkoa, Antzuolan bizi zen (R.S.T inizialduna). Lurrera erori zen eta oso zauri larriak izan zituen. Zauri horien ondorioz hil egin zen, Gasteizko Santiago Ospitalean.

J.A.

Protesta 'berdea', AHTren aurka

Euskal Herriko ibaiak berde kolore biziz margotuta agertu ziren domekan hainbat herritan; tartean, Oñatin, Arrasaten, Bergaran eta Aramaion. AHTren aurkako kartelak ere agertu dira ibai ondoetan eta AHT Gelditu! elkarlanak hartu du bere gain gertakizuna. Herrizaingo Sailak esan du fluoreszeina zela botatako sustantzia ez kutsakorra.

POLITIKA

Bergarako Bolu auzoan etxebizitza bat miatu dute

Segiren aurka abiarazitako operazioaren baitan egin zuten miaketa

MAIALEN GONZALEZ > BERGARA

Egubakoitz goizaldean Bergarako Bolu auzoko etxebizitza bat miatu zuen Polizia Nazionalak, Auzitegi Nazionaleko Grande-Marlaska epaileak Segiren aurka abiarazitako operazioaren baitan. Hainbat iturriren arabera, Aitziber Plazaola gaztearen bila ari ziren, bertan egon eta gero honen gurasoen etxea ere miatu baitzuten.

ARRASTORIK EZ

Etxebizitzan hiru pertsona zeuden, baina ustez bila ari ziren Aitziber Plazaola ez zegoen han.

Hala eta guztiz ere, lekukoen arabera hainbat kutxa atera zituzten etxebizitzatik. Eta ondoren, haren gurasoen etxea ere miatu zuen Polizia Nazionalak.

Begona Gomez ikastaro zuzendaria Baketik zentroaren sarreran. BAKETIK

Begoña Gomez > Baketik-eko ikastaro zuzendaria

"Norbera eta ingurukoak hezten laguntzeko prestakuntza emango dugu"

MIREIA BIKUÑA > ARANTZAZU

Baketik zentroak urriaren 29an eta 30ean abiaraziko du gurasoendako eta irakasleendako eskola Arantzazun. Lehen urratsak 2010-11 ikasturtean egingo dituzte, hurrengo ikasturteari begira sendotzeko asmoz. Baketik zentroko ikastaro arduradun Begoña Gomezek eman dizkigu xehetasunak.

Ze helburu bete gura dituzue Baketik-en eskola berriarekin?

Prestakuntza eman gura diegu gurasoei eta hezkuntza munduan diharduen edonori, norbera eta ingurukoak hezten laguntzeko. Eskolaren abiapuntu gisa *Nola hezi pertsona izaten?* galdera planteatu genuen.

Gauza batzuetan oso garbi daukagu zer jakin behar dugun ondo hezteko; adibidez, matematikak, hizkuntzak... Baina beste kontu batzuetan zailagoa da horiek zehaztea. Ez dakigu zer ikasi behar dugun bakean hezteko, edo zer jakin behar dugun bakardadeari edo sufrimenduari aurre egiteko. Erantzun horiek topatzea ez da erraza. Horiek guztiak landuko ditugu Baketik-eko guraso eskolan.

***Bizikasi* pedagogia eta Izan Proposamena dira eskolaren oinarriak.**

Bai, hala da. *Bizikasi* pedagogiak Baketik-eko prestakuntza-eskaintza osotasunean hartzen du. Pedagogia horrek zortzi ikaskuntza ditu ardatz eta bizitza hobetzea du helburu. Bi kontzepturen sinergiaren emaitza da: bizipena eta ikaskuntza. Gure bizipenaren kontzientzia izanik eta horretatik ikasiz gure burua hobe dezakegula esan gura du. Izan Proposamena *Bizikasi* pedagogiarekin bateragarria da. 2008an aurkeztu genuen jendaurrean: Lehen Hezkuntzatik batxilergora arte, gure burua hezteko baliabide teorikoak eta praktikoak eskaintzen dituen tresna da.

Horregatik guztiagatik diogu gurasoen eta irakasleen eskola *bizikasi* pedagogiaren eta Izan Proposamenaren eskola dela. Alegia, gure burua eta besteak hezten ikasteko eskola.

Zergatik bideratu duzue eskola gurasoendako eta irakasleendako?

Baketik zentroaren lehen hiru urteetan helduendako prestakuntza-ikastaroak eskaini genituen, nor bere buruarekin eta besteekin elkarrekin bizi izateko ikaskuntzei buruz. Horietan, 6.000tik gora lagunek parte hartu zuten, tartean ikaskuntza arloko kide asko. Gure proposamenaren aurrean interesa erakutsi zuten, eta eskola baten beharra zegoela erabaki genuen.

"Bizikasi' pedagogiak zortzi ikaskuntza ditu ardatz eta bizitza hobetzea du helburu"

"Izan Proposamenak hezteko baliabide teorikoak eta praktikoak eskaintzen ditu"

"Ikastaroan parte hartu gura dutenek ez dute baldintzarik bete beharko"

Urriaren 29an eta 30ean egingo duzue lehen ikastaroa. Zer landuko duzue?

Izan Proposamena zortzi ikaskuntzatan garatzen da. Lehen ikastaroan lau ikaskuntza landuko ditugu, eta otsailaren 11n eta 12an, gainerako laurak. Teoria eta praktika landuko ditugu, bakarkako eta taldekako lanak egingo ditugu, solasaldietan parte hartu... Bi ikastaroetan parte hartzen dutenek Izan Proposamena osotasunean ezagutuko dute; baina aukera dago ikastaro bakar baten parte hartzeko.

Parte-hartzaileek baldintzarik bete behar dute?

Ez. Ikastaroetan parte hartu gura duten guztiak etor daitezke. Dena den, kontuan hartu behar da ikastaro batzuk gurasoendako direla eta beste batzuk irakasleendako. Bietan esparru teoriko bera landuko dugu, baina aplikazio praktikoa ezberdina izango da. Irakasleendako ikastaroan gelan lantzeko ariketak egingo ditugu, eta gurasoen ikastaroan egunero sor daitezkeen arazoak aztertu eta landuko ditugu.

Zer egin behar dute ikastaroan parte hartu gura dutenek?

Hiru bide dituzte izena emateko: 943 25 10 05 telefonora deituta; *baketik@baketik.org* helbidera mezua bidalita; edo, *www.baketik.org* helbidean. Informazioa gura duenak bide berberak erabil ditzake.

---

etxeko leihotik

Ubane Madera > arrasate@goiena.com

Geuk ere ipini behar dugu zatitxo bat

Aurreko baten tokatu zitzaidan Mojategiko kiroldegira joatea 17:30ean eta gero handik lantokira (Otalora kalera) buelta egitea, 18:30 inguruan.

Purrustada ederrak egin nituen, buelta eta buelta, aparkatu ezinda, automobilak alde guztietan, ilara bikoitzetan… Azkenean, 20 minuturen ostean lortu nuen aparkatzea; hori bai, lantokitik urruti samar.

Hasierako erreakzioa haserretzea izan zen, modu horretan ibiltzearren. Baina bi bider pentsatu ostean konturatu nintzen neuk ere errazera egin nuela.

Hau da, okurritu ere ez zitzaidan egin, adibidez, herri barruko urbanoaren ordutegia begiratzea, ea autobusa hartzerik baneukan. Izan ere, askoz erosoagoa da autoa hartzea, ezta? Niretako bai, behintzat.

"Bizitza honetan ia guztia izaten da jarrera edo borondate kontua"

Lantokian sarri entzuten dut bizitza honetan guztia edo ia guztia dela jarrera/borondate kontua. Eta esperientzian oinarrituta, neuk ere hala dela uste dut.

Eta nago hori bizitzako arlo guztietan aplikatzea komeni dela, baita, kasu honetan moduan ere, ingurumena zaintzeko kontuetan. Edo akaso, gehiago halako kontuetan, berez, bizitzako ohiturak aldatzea eskatzen dizkigute-eta halakoek, eta hori guztiondako izaten da nekagarria.

Ez da erraza, duda barik, eta baliabideak ere behar dira; baina apurka-apurka… txikia handitzen joaten da.

> Ahalegin handia
egiten dabil Arrasateko Udala azken denboran herritarrak herrian ahalik eta errazen mugi daitezen. Esaterako, igogailu publikoak eraiki ditu eta urtea bukatzerako urbanoaren zerbitzua bikoiztu egin gura du.

> Lurraldebusek
ere egin du ahalegina azkenaldian herri arteko autobus zerbitzua indartzeko, eta herritar asko dago pozik; hori bai, nik eskatuko nieke herri txikiak ere kontuan hartzeko eta sistema optimizatzeko.

LITERATURA > AIPAMENA

Euskadi Saria jasoko du Fermin Etxegoien oñatiarrak

'Autokaraba'-n kooperatiban baten lan egiten duen pertsonaren istorioa kontatzen du

M.B. > OÑATI

Fermin Etxegoienek (Oñati, 1966) Euskadi Saria jasoko du. Idatzi duen lehen eleberriarengatik jasoko du saria oñatiarrak. Hain zuzen ere, *Autokarabana* liburuarengatik. Sariaren antolatzaileek gaur jakinaraziko dute albistea.

BI URTEKO LANA

Etxegoienek kooperatiba baten lan egiten duen pertsona baten istorioa kontatzen du. "Protagonista Euskal Herrian bizi da. Hiri handi baten familia izan du, baina bere jaioterrira bueltatzen da, eta kooperatiban hasten da lanean. Esperientzian oinarritutako literatura da, egungo familia zein laneko bizipenak jasotzen dituena", esan zion *Goienkariari* liburua aurkeztu zuenean.

Bi urte pasa eman ditu oñatiarrak *Autokarabana* eleberria idazteko.

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

Atera etekina txartelari!

Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta egubakoitzetan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, GOIENKARIA-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.

Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

ARRASATE/OÑATI
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló BIDAIAK

BERGARA/ARRASATE
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)
ARRASATE
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

ARETXABALETA
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

CLINICA DENTAL BERGARA
BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

DONOSTIA
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

DONOSTIA
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

BERGARA
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

DONOSTIA
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.

Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com*

MANKOMUNITATEA > GOBERNU BATZORDEAREN BILERA

Atez ateko sistemaren gaineko komunikazio kanpaina abian

Eudelek proposatutako ordainsarien murrizketarekin bat egitea erabaki zuen Mankomunitateak eguazteneko batzordean

EDU MENDIBIL > BERGARA

Eudelen proposamenarekin bat egin zuen Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu batzordeak eguaztenean. Gainerako instituzioekin jarduera bateratua eta koordinatua proposatu zuen Eudelek maiatzean. Murrizketa hori soldata-masaren %5ekoa izango da urteari dagokionez, Eudelen proposamenaren arabera, eta %2,86koa ekainetik abendura arteko epean. Soldata txikien duten langileen ordainsaria %0,56 murriztea proposatu du Eudelek urteko bigarren zatirako. Gehien kobratzen dutenek, berriz, %2,72 gutxiago jasoko dute. Mankomunitateko langileekin neurriok jarraitzeko proposamena onartu zuten eguaztenean.

ATEZ ATEKO KANPAINA

Bestalde, Debagoienean zaborrak atez ate batzeko sistema ezartzeko komunikazio kanpainari ekingo dio Mankomunitateak. Hiru enpresa gonbidatu dituzte proposamenak aurkeztera: Harman (Oiartzungoa), Artelatz (Tolosa) eta Ortzadar (Bilbo). Azaroaren 5era arte dute proposamenak aurkezteko epea eta abenduan ekingo diote kanpainari Mankomunitatetik. 60.000 euro inguru da aurrekontua. Pedro Lasagabaster Mankomunitateko presidentearen arabera, gauzak ondo egiten laguntzea da kanpainaren helburua. Mankomunitatea atez ateko sistemaren alde azaldu da eta Antzuola izango da sistema ezartzen lehena. Zaborra batzeko sistema berria ezartzeko modurik onena mailakatua izango dela adierazi dute Mankomunitateko iturriek. Herri bakoitzean osoko bilkurak eman beharko dio onespena atez ateko sistemari.

ZABOR TASAREN IGOERA AZTERGAI

Bestalde, 2011ko zabor tasei buruzko proposamena ere aztertu zuten eguazteneko batzarrean. Bada, %1,99 igotzea da Mankomunitatearen proposamena, baina erabakia udal bakoitzak izango du.

Atez ateko sistemaren gaineko komunikazio kanpaina egingo du Mankomunitateak abenduan. GOIENKARIA

Felipe Antonio Igartua.

Felipe Antonio Igartua > Pentsioduna

"Gizarte Segurantza Euskadira ekarri behar dugu"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Gipuzkoako Jubilatu eta Pentsiodunen Plataformak deituta, manifestazioa egingo dute egubakoitzean, hilaren 29an, Donostian, 11:00etan. Debagoieneko Pentsiodun eta Aurretik Erretiratuen Elkarteko (Appalde) presidentea da Ugarte oñatiarra.

Pentsiodunen egoera hobetzea, horixe aldarrikatu nahi da Donostian.

Argi dago urtetik urtera gure erosteko ahalmena beherantz doala, eta azkenaldiko murrizketekin zer esanik ez... Alargunak ere ez daude egoera batere onean eta aurretik erretiratuen pentsioak ere baxuak dira. Egoera hobetzea aldarrikatzen segitu behar dugu, bestela gero eta murrizketa gehiago etorriko dira-eta.

Biztanleria gero eta zaharragoa eta pentsioak ordaintzeko nahikoa diru ez...

Horretan oinarritzen dira, baina pentsioen dirua langileek eta Patronalak jarritako dirutik dator.

Zein da zuen aldarrikapena egoera hobetzeko?

Interesgarria izango litzateke Euskadira ekartzea Gizarte Segurantzako transferentzia. Jaurlaritzan badute gure eskaera jasota. Ea Jauregi ministroak zer egiten duen...

Hainbat elkarteren laguntza izan dute proiektua gauzatzeko; inaugurazio ekitaldia 17:30ean izango da

OÑATI > ONDAREA

Arrikrutzeko Interpretazio Gunea inauguratuko dute bihar

E.M. > BERGARA

Arrikrutz-Oñatiko Koben Interpretazio Gunearen inaugurazioa izango da bihar, martitzena, kobetako harreragunean, 17:30ean.

Proiektura hurbiltzen diren bisitariei kobetan guztiz murgildu eta esperientzia berria bizi izateko aukera eskainiko diete aurrerantzean. Hainbat elkarteren laguntza izan dute proiektua gauzatzeko; besteak beste, Aloña Mendi Espeleologia Taldea, Tantai Naturlanak, A. Arrizabalaga, E. Beruete, Aritza… Azken hilabeteotako lanaren emaitza da Interpretazio Gunea.

DUELA 120 MILIOI URTETIK...

Hainbat gai landu dituzte: koben kokapena; kareharriaren erakeita eta bilakaera; paisaia karstikoa; Gesaltza-Arrikrutz-Jaturabe multzo karstikoa; Oñatiko espeleologiaren historia; paleontologia; koba animaliak; troglobioak; eta kronograma, orain dela 120 miloi urtetik gaur arte.

Ukabi informatika
Enpresa kudeaketa aplikazioak
•
Era guztietako webguneen diseinua
•
Etxerako eta enpresetarako salmenta
Domingo Irala z/g
(Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 76 51 95

Eskaintza esklusiboa
Prezio hauekin, edonork izan dezake eskuko ordenagailua!
Lenovo G550 eramangarria
• Teknologia: Intel Pentium Dual Core T4400, , 2.20ghz
• RAM: 4 GB
• Pantaila: 15,6 hazbeteko LED pantaila.
• Disko gogorra: 320 GB
• Integratutako webcama: Bai
• Sistema eragilea: Windows 7 Home Premium
• DVDRW
... eta ehunka produktu eta eskaintza aurkituko dituzu gurean.

Elkar Hezi ikastetxeko Guraso Elkarteak antolatuta, Juan Carlos Alonso psikologoak hitzaldia egin zuen eguenean. Bereziki Haur eta Lehen Hezkuntzako gurasoei zuzendutako hitzaldia izan zen. Familian gertatzen diren banaketen edo heriotzen aurrean haurrekin nola jokatu azaldu zuen Alonsok. Aipatutako egoerei aurre egiteko zenbait gomendio eman zituen.

Juan Carlos Alonso > Psikologoa

"Egoera berrietara egokitzeko uste baino ahalmen handiagoa dute haurrek"

EDU MENDIBIL > OÑATI

Juan Carlos Alonso (Errenteria, 1959) psikologoa gonbidatu zuten eguenean Elkar Hezi ikastetxera hitzaldia egitera. *Nola jokatu familien gertatzen diren aldaketen aurrean?* gaiari heldu zion Alonsok eguen arratsaldean, eta banaketen edo heriotzen aurrean seme-alabekin nola jokatu behar den azaldu zuen. Gurasoen formazioan eta hezitzaileekin lanean jardundakoa da Alonso. Era berean, urte asko daramatza heziketaren inguruko hitzaldiak egiten han eta hemen.

Aldaketen aurrean familian nola jokatu. Traumatikoak gerta daitezkeen egoeren aurrean babestuagoak daude gaurko haurrak?

Gaur egungo gurasoen heziketa tankerari erreparatuz gero, orokorrean haurrak babesteko edo gain-babesteko joera dagoela esango nuke. Edozelan ere, ez zait gustatzen orokortzea, denetariko kasuak daudelako, baita zuzen jokatzen dutenena ere, haurrei behar duten denbora eskainiz, arauak ezarriz, balioak transmitituz...

Eta zein litzateke jokabide zuzena etxeko "aldaketen" berri eman behar denean?

Seme-alaben adina, garapena eta izaera izan behar dira kontuan, baina epe motzean datozen aldaketen berri eman behar diegu haurrei. Argi informatzea da onena, haien zergatiei arreta eskainita eta modu zuzenean erantzunda. Azken baten, familian banaketak, heriotzak edo gaixotasun larriak izaten badira, eta ez badituzu seme-alabak informatzen, zerbait arraroa sumatuko dute haiek, eta segurtasunik eza eta antsietatea eragin diezaiekegu.

Banaketaren kasuan, esaterako, gurasoei ez zaie batere erraza gertatuko horren gainean seme-alabei berba egin behar izatea.

Gurasoek egoera kontrolpean dutela transmititu behar dute; haiek lur jota geratzen badira, normalena haurrak ere lur jota egotea izango litzateke. Seme-alaben segurtasuna bermatzea ezinbestekoa da, berdinberdin babestu eta maitatuko ditugula transmititu behar diegu. Gurasoek norabide berean egin behar dute aurrera, egonkor, oreka psikologiko eta emozionalari eutsiz, eta seme-alaben aurrean kontraesanetan jausi barik. Gurasoek "ados" egon behar dute nolabait, kontraesanek nahasmena ekartzeko arriskua daukatelako. Seme-alabek eguneroko bizitzan ahalik eta aldaketa gutxien sumatzen badute, askoz hobeto.

KONFIANTZA

"Ez baditugu haurrekin aldaketak konpartitzen, sumatu egingo dituzte, eta segurtasunik eza eta antsietatea eragin"

ADINA

"Beti zerbait adierazi behar diegu haurrei; informazioa haurraren adinari egokitzea da kontua"

NORMALTASUNA

"Aldaketak egon arren, ohiko bizimoduari eusten ahalegindu behar dugu beti"

HERIOTZA

"Aitaita edo amama hiltzen badira, haien argazkiak ikustea ariketa interesgarria da txikienendako"

EMOZIOA

"Haurrek emozioak espresatzea onartu behar dugu, marrazketarekin dela, gorputz adierazpenarekin..."

Zein punturaino da erabakigarria seme-alaben adina?

Nahiz eta haurrak txikiak izan, 3-5 urte bitartekoak adibidez, aldaketa traumatikoen berri eman behar diegu, haien garapen psikologikoa kontuan izanda, noski. Baina bere mailan beti zerbait adierazi behar diegu. "Ez du ulertuko" edo "Ez da konturatzen" aitzakiak entzuten ditugu maiz, baina ez da egia. Informazioa haurraren adinari egokitzea da kontua.

Eskolaren zeregina halakoetan zein izan daiteke?

Eskolak eta familiak haurrak hezten jarraitu behar dute eta eskolak informazioa jasotzea komeni da, zenbaitetan gertatutakoa ezkutatzeko joera dutelako gurasoek... Nahiz eta eguneroko bizitzan aldaketak egon, bizimodua ahalik eta normala egiten ahalegindu behar dute haurrek. Oreka emozionalari eustea da inportanteena. Ezin gaitezke txantaje emozionaletan erori: haurra sufritzen dabil eta hobe izango da hau edo beste hau ez egitea. Ez. Egoera berrien aurrean uste baino malguagoak dira haurrak eta badituzte baliabide intelektualak eta psikologikoak aurrera egiteko; egoera berrietara egokitzeko uste baino ahalmen handiagoa daukate.

Oñatiko hitzaldian heriotzari eta banaketari aurre egiteko gomendioak edo zertzelada moduko batzuk aipatu dituzu. Goazen heriotzarekin lehenbizi...

Normalizatzea da kontua. Txikitandik has gaitezke lan horretan eta horren adibide izan daiteke etxeko animalien heriotzak gertatzen direnean. Haurrak momentu horiek bizi izatea inportantea da, etorkizunean gerta daitekeenari aurre egin ahal izateko. Gauza bera elizkizunekin... 7 urterekin seme-alabak horretara ohitzea ez legoke gaizki. Aitaita edo amama hiltzen badira, haien argazkiak ikustea edo bizipenak oroitzea ariketa interesgarria izango da etxeko txikiendako. Azkenik, haurrek emozioak espresatzea onartu behar dugu, marrazketarekin dela, gorputz adierazpenarekin...

Bukatzeko, banaketa nola bizi etxean?

Juan Carlos Alonsok hitzaldia egin zuen eguenean Oñatin. GOIENKARIA

Aurretik esandakoari jarraituz, neska-mutikotxoen aurrean senar-emazteek, bikoteek, elkarrengandik gaizki esaka ibiltzea, ez da sekula egin behar. Horrekin batera, umearen aurrean biktima moduan ere ez da agertu behar.

Bestalde, haurra informatzaile moduan erabiltzea, aitaren edo amaren gorabeheren berri jakiteko ere ez da komeni. Eta haurrarekin ez egin ekintza dibertigarriak bakarrik. Hobe da hezteko, gozatzeko eta lasaitzeko estrategiak bultzatzea.

Kutxa Auto Asegurua

Hemen, erabateko ezbeharrak,
sute edo lapurretak esan nahi du

Auto berriaren balioaren %100 bi urte igaro arte

> %60rainoko hobaria gidari ona izateagatik.
> Bidaian laguntza 0 km-tik, 24 orduetan, 365 egunetan.
> Kristal-apurtze, lapurreta edo suteagatiko parteek ez dute frankiziarik ordainduko, ezta hobariari eragingo ere.
> Eta hasteko, Esku Libreko bat opari duzula abiatuko zara.

Informa zaitez eta kalkulatu zeure prima kutxaren edozein bulegotan.

kutxa
zugandik zugana

* Kutxa Auto Liberty Seguros, Compañía de Seguros y Reaseguros S.A.ren produktu bat da. Kutxa, Biharko Vida y Pensiones-en banku/aseguruetako operadore esklusiboa da. Haren baimena dauka Biharko Aseguradora-rekin eragiketak egiteko, eta Bitartekarien Erregistro Administratibo Berezian inskribatuta dago C0654G20336251 zenbakiarekin. Aseguru honetan bitartekari-lanak egiten ditu Biharko Aseguradora-ren eta Liberty Seguros-en artean izenpetutako banaketa-akordioaren testuinguruan.

kale inkesta

Gipuzkoan, batzen den perretxiko kopurua eguneko bost kilora mugatu nahi dute. Zer deritzozu?



Jose Luis Etxaniz
Erretiratua
Bergara

Ondo iruditzen zait. Uste dut bost kilo nahikoa direla. Muga bat ipintzea ondo dago. Dena dela, zigorrak ipintzearekin ez nago ados. Bost kilo baino gehiago batu dituenari gainontzeko perretxikoak kendu eta listo!

Mertxe Arrieta
Langilea
Bergara

Uste dut bost kilo asko direla, askotan zaila izango da horrenbeste batzea. Dena dela, ondo iruditzen zait nolabaiteko neurriak hartzea. Jende askok, mendira joan, eta sekulako sarraskiak egiten ditu.

Pedro Toledano
Erretiratua
Bergara

Ni ez naiz perretxikotara joaten, baina bost kilo asko iruditzen zaizkit. Nik neuk bi kiloko muga ipiniko nuke. Denek aukera berdinak izan behar dituzte eta ez gutxi batzuek perretxiko guztiak batu.

Joxe Antonio Arregi
Erretiratua
Bergara

Oso gaizki iruditzen zait. Bizi guztian joan naiz perretxikotara eta sekula ez dugu horrelako mugarik ikusi. Norberarendako badira ez dut ondo ikusten mugak jartzea; saltzeko-edo badira bai. Orduan bai.

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE
> Kiroldegi inguruan espaloian aparkatzen dute askok

Arrasatear batek posta elektronikoa bidali digu honako kexa egiten: "Musakolako kiroldegi kanpoan gidariek behar ez duten tokian aparkatzen dute: espaloian. Batez ere arratsaldeetan, betebeteta egoten da. Gainera, udaltzainek oharrak utzi bai, baina isunik ez dute jartzen, eta horrela, jendeak ez du ohitura aldatu beharrik ikusten". Eta bukatzen du: "Aparkaleku falta arazoa da guztiondako, baina espaloiak inbaditzea ez da jokatzeko modua".

BERGARA
> "Gazteak anima daitezela odol-emaile egitera!"

Atzo batzarra izan zuten Debagoieneko odol-emaileek Elgetan. Bergarako odol-emaile batek hauxe esan digu: "Ni orain dela gutxi hasi naiz odola ematen, eta zorionak eman nahi dizkiet urteak daramatzatenei. Ematen du Debagoienean ondo gabiltzala odol-emaile kopuru aldetik; baina zenbat eta emaile gehiago, hobeto. Gazteak animatu nahi ditut odol-emaile egitera, merezi du-eta".

ARETXABALETA
> Minbizia prebenitzeko errebisioak, gero eta murritzagoak

Bularreko minbiziaren nazioarteko eguna izan berri dela-eta, Aretxabaletako emakume batek kexa hau helarazi digu: "Larrua behar da errebisio ginekologikoak maiz egin behar ditugula esateko, jakinekoa denean Osakidetzak urtetik urtera ginekologia zerbitzuan murrizketak egiten dituela, gure osasunaren kalterako".

usteak uste

Arritxu Barruso

36ko gerrako izarrak, bizirik

Eguenean, urriak 21, 74 urte bete ziren Hernaniko kanposantuan 19 debagoiendar fusilatu zituztela eta, besteak beste, horixe ekarri zuen gogora gure ibarra bisitatu zuen Oroimenaren Autobusak. Ekitaldi hunkigarria egin zuten Aretxabaletan. Gerran fusilatutako 122 debagoiendarrak gogorarazi zituzten eta bakoitzaren izenarekin izar marka duen pegatina bana jarri zuten senitartekoek eta lagunek. Izarrak urte asko bizi dira. Bada, jarrai dezatela gure memorian urte askotarako Debagoieneko izar hauek ere; askatasunaren, demokraziaren eta etorkizun duin baten alde borroka egin zuten izarrak.

Malko Gorriak dokumentala ere estreinatu zen eguenean; 36ko gerran, Aretxabaletan girotutakoa. Hunkigarria eta gogorra da dokumentala; urte horietan gure herrietan bizi izan zena benetan gogora izan zelako.

zorroztailea

Joxemari Muxika

Ze inposizio?

"... Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko Dekretuaren gainean, aipatu zuen Jaurlaritzak ez duela inolako asmorik euskara ez erabiltzeagatik enpresa bati isuna jartzeko eta, beraz, dekretua berregingo duela: "Hizkuntza normalkuntza kontsentsutik soilik etorriko da, eta inoiz ez inposiziotik."

Erabili.com > 2010-10-22

erabili.com

Lurdes Auzmendik dio "Hizkuntza normalkuntza kontsentsutik soilik etorriko da, eta inoiz ez inposiziotik". Ados nago printzipio horrekin, oso egokia deritzot eta sailburu batek hiritar guztioi inposizioa ez dela bidea gogoratzea ere ondo dago.

Euskararen erabilera areagotu nahian gabiltzanok aspalditik daukagu harremanetarako jarrera hori, baina, nola neurtzen da inposiziorik dagoen edo ez? Euskararen alde hobe beharrez hartutako neurriak direnean bakarrik gertatzen al da inposizioa?

Badago jendea bi belaunalditan zehar euskal hiztunen artean bizi dena eta euskaraz egiten ez duena, "no entiendo" batekin ahoa bete hortz uzten zaituena edo, "hable en castellano" zakar batekin erantzuten dizuna. Nola baloratu behar da guzti horien jarrera? Horrela funtzionatzen duen jendea beti hartzekoekin dabil. Beraien seme alabentzako euskararen jakintza bermatzeko nahiko euskara irakasten ez duten eskolak nahi dituzten gurasoei elkarbizitzarako proiektu kontsentsuatua hausten dutela esaten al zaie?

"Noiz entzungo diogu horrelako deklarazio bat Eusko Jaurlaritzako lehendakariari, jarrera inposatzailea euskararen kaltetan denean?"

Euskararen aldekoei bakarrik gogoratu behar al zaie balizko jarrera inposatzailea delako hori? Noiz entzungo diogu horrelako deklarazio bat Eusko Jaurlaritzako Lehendakariari edo Hizkuntza Politikarako Sailburuari, jarrera inposatzailea euskararen kaltetan denean?

Jende guztiak ez du euskara baztertzeko jarrera hori zorionez. Makina bat jende ezagutzen dugu ederki asko euskara eta gaztelania ikasi duena eta eragozpen horretatik libre beraien buruari eta solaskideari nahi duten komunikazio hizkuntza hautatzeko aukera ematen diona. Elkarrekin bizitzeko filosofia horri esker modu atseginean aurreratzen ari gara hainbat lekutan inoren aukera baztertu gabe.

Hizkuntza egoera asimetrikoa orekatzea ezinbestekoa da elkarbizitza atsegina nahi bada. Guztiok izan behar dugu batak bestearenganako errespetua, baita enpresariak ere eta ezin da atzera egin hauen lehenengo purrustadan.

ASTELEHENEKO
Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi
Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
Asteburuko erredakzioaren arduradunak
Monika Belastegi eta Leire Kortabarria **Erredakzioa** Arritxu Barruso, Irati Goitia,Amaia Txintxurreta, Maider Arregi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com
ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com
Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale
Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
Antzuola > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20

> ARRASATE
Arrasate Lehiaketen 24. edizioa abiarazi du AEDk eta lanak aurkez daitezke otsailaren 4ra arte **> 15**

> BERGARA
Azoka egingo du dendarien Bedelkar elkarteak azaroaren 6an eta 7an, pilotalekuan **> 16**

> OÑATI
Ugarkalde auzoko haur parkea eta lorategia zabaldu dituzte dagoeneko **> 18**

ARRASATE > HEZKUNTZA

Izan ginena, garena eta izango garena ezagutzeko unitate didaktikoak prest

KULTURA ONDAREA
Herritartasuna sustatzeko ahalegina, herria hobeto ezagutzeko asmoz

SEI UNITATE
Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako unitate didaktikoak aurkeztu dituzte

Egueneko aurkezpenean, goian, ezkerretik: Balantzategi, Eizmendi, Urbe, Mondragon; behean: Mendizabal, Aranburu eta Barberan. JOKIN BEREZIARTUA

MAIALEN GONZALEZ > ARRASATE

"Aurrerabidean jatorria ezinbesteko mugarria denez, gure sustraiak eta ondarea, nondik gatozen jakitea da etorkizuna eraikitzeko lehen harria". Herritartasuna eta kultura ondarea sustatzea helburu, *Herria ezagutzen* egitasmoa aurkeztu dute, besteak beste, Arrasateko Udaleko Hezkuntza Saileko Oihana Aranburu zinegotziak eta Juanito Barberan teknikariak. Bertan izan ziren, baita ere, *Hik Hasi*-ko bi ordezkari eta herriko ikastetxeetako ordezkariak.

2010-2011 IKASTURTERAKO

Sei unitate didaktikoz osatutako egitasmoa da, 6-12 urte bitarteko haurrentzat egina. Ikasturte bakoitzean, beraz, unitate bana landuko da. Horietako bakoitzak herriko ondarearekin lotutako hainbat kontzeptu eskaini eta herriko pertsonaia, bitxikeria, abesti zein ohiturak ezagutzeko eta lantzeko aukera emango du. Eta, bide batez, euskal curriculuma gertutik eraikitzen hasteko eta ikasleen interesa pizteko, gertukoak zaizkien ezagutzetatik abiatuko dira.

Gaien aukeraketa Udalaren ardura izan da eta hauek dira unitateen izenburuak: *Izan ginelako, Errementarien zalapartapean, Handitzen handitzen, Gure altxorra, Izan ginelako gara eta Ekin eta ekin.* Udalaren asmoa liburuxkak 2010-2011 ikasturterako argitaratzea da.

HERRITARTASUNA ETA ONDAREA

Arrasateko Udalak, *Hik Hasi* aldizkariarekin eta herriko ikastetxeekin elkarlanean, egungo ikasleek euren herriari buruz duten informazio eskasia azpimarratu nahi du. Izan ere, gaur egungo teknologia berriek edonoren eskura jartzen duten gehiegizko informazioak herrietako kultura ondareari kalte egiten diotela aipatzen dute: "Gure herriari buruzko informazioa sakabanatuta dago, nahastua eta belaunaldi batetik besterako igarobidea askotan ondo zehaztu gabe".

Herria ezagutzen egitasmoaren bidez hori guztiori gainditzea da helburua: "Izan ginenaz, garenaz eta izango garenaz jabetzeko asmoz, gure herria bertatik bertara ezagutu eta ezagutarazi ahal izateko".

ELKARLANEAN

Hik Hasi-k Orereta, Villabona eta Hondarribia herrietarako proposatutako ereduari jarraituz, Udaleko Hezkuntza Sailak ekimen hori aurrera eramatea erabaki zuen. 2008ko ekainean Hezkuntza batzordean aurkeztu zuten lehenengoz Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ikasleei zuzendutako herriko ondare kulturalari buruzko unitate didaktikoa eta informazioa. Harrezkero, unitate didaktikoan lanean ibili dira, *Hik Hasi* aldizkariaren eredua oinarritzat hartuta.Udaleko Hezkuntza Saila arduratu da Arrasate herriaren iraganaz eta orainaz dauden liburuak eta informazioa jasotzeaz eta sailkatzeaz. Behin lan hori eginda, herriko ikastetxeetako irakasleekin harremanetan jarri ziren, eta gida pedagogikoa aurkeztearekin batera haien ekarpenak eta iradokizunak jaso. Ondoren, unitate didaktikoa eta gida pedagogikoa *Hik Hasi* aldizkarira bidali zuten. Haiek edukia, proposatutako jarduerak eta gidaren azalpen pedagogikoak aztertu eta behin betiko unitatea proposatu dio Udalari.

Behin martxan jarrita, Lehen Hezkuntza osoari begira hasi ziren lanean. Unitate didaktikoak bukatutakoan, ikastetxeekin batera hausnarketa egingo da.

Etorkizuneko proiektu interesgarrien artean, hauek aipatu zituzten: webgunea sortzea, bertan, unitate didaktikoak, gida pedagogikoak edota herriko toponimiaren inguruko informazioa zintzilikatuz.

Bestetik, hausnarketatik abiatuta Helduen Hezkuntzako (HH) eta Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleei begira egin daitezkeen proposamenak zehaztea; eta, hezkuntzan ez ezik, herritarren artean ere ondare kulturala ezagutarazteko egitasmoa garatzeko plangintza egitea.

ESKORIATZA > HERRIEN ARTEKO ERRONKA

Degurixa, Eskoriatza eta Aretxabaletarendako

Guztira, sei proba egin zituzten Eskoriatza eta Aretxabaletako gazteek. Azkenean hiruna berdindu zuten Degurixa erdibanatuz. JOSETXO ARANTZABAL

Oñatiarrek ez diote hordagoari erantzun eta Degurixatik urrunago daude orain

MAIDER ARREGI > ESKORIATZA

Degurixa norena izango den urteetako eztabaida izan da. Uztailean behin betiko erronka egingo dute Degurixan eta hor erabakiko da lur-eremu hori bi urteterako zein herrirena izango den. Aurretik baina, herri bakoitzean Geurie Don/k Degurixa! jaia egingo da. Hala, otsail aldera Aretxabaletan egingo dute jaia. Oñatin, berriz, aurrerago egitea pentsatuta daukate antolatzaileek. "Ez dakigu oñatiarrek hordagoari erantzungo dieten. Antza denez, Degurixan egingo den finalera joango dira bakarrik. Oilo bustiak ez daitezela izan esan nahi diegu eta ea Oñatitik sarriago irteten diren!".

Garagardoa eta umorea izan ziren nagusi zapatuko jaian. Zelaieta eta Otamena Hamaika Bertuteko bertsolariek giroa eta lehiakideen arteko *pikea* areagotu zituzten jokotik jokora. Azkenean, berdinketa nagusi eta Degurixa erdibana izango da Eskoriatza eta Aretxabaletarendako.

DEGURIXA NORENDAKO IZANGO DA?

Iratxe, Ane eta Maialen
Eskoriatza

"Eskoriatzak irabaziko duela ez dugu zalantzan jartzen. Gainera, Oñatikoak ez dira azaldu eta aukera gehiago izango dugu Degurixa gurea izateko (kar,kar). Guk irrintzi lehiaketan hartuko dugu parte eta prestatuta gatoz aurre egiteko aretxabaletarrei. Badakigu jendeak aste barruan entrenamenduren bat egin duela eta ondo antolatuta etorriko dela. Helburua da ondo pasatzea eta herriak batzea jai giro ederrean".

Jone
Oñati-Aretxabaleta

"Oñatikoak ez dira agertu eta pena bat izan da. Hiru herriak aurrez aurre ikusi gura genituen. Nik Oñatiko odola daukat, bihotza Aretxabaletakoa. Beraz, Aretxabaletaren alde hartu dut parte gaurkoan".

Gorka, Ibai eta Gari
Aretxabaleta

"Aretxabaletak dena emango du, beti moduan. Degurixa betidanik izan da Aretxabaleta eta uztailean gurea izango da bi urterako. Gu garra gara eta eskoriatzarrak egurra dira! Proba guztietan Aretxabaleta moldatuko da ondoen, ez daukagu zalantzarik, propio prestatutako selekzioa ekarri dugu-eta. Atzo, oliba hezurrekin praktikatzen ibili ginen. Astean zehar baserrian ibili gara belar fardoekin probak egiten".

ELGETA > TXAPELKETA

Bolatoki tabernako odolki pintxoa saritu zuten Elgetan

Odolkia, karbonara fina, txanpiñoiak, langostinoa eta piper saltsaz eginda zegoen

HAURREI MASAJEA EMATEN IRAKASTEKO IKASTAROA

0-1 urteko haurrak dituzten gurasoendako

ANTOLATZAILEA
MUGI, Psikomotrizitate, Prebentzio eta Laguntza Zentroa
TOKIA
Araba etorbidea 3, 2-3.atea ARRASATE
EGUNAK
Azaroak 3, 10, 17 eta 24.
ORDUA
10:30etik 12:00etara.
INFORMAZIOA
MUGI ZENTROAN - 943 77 08 05
ARRASATE

- LASAITZEKO
- HOBETO LO EGITEKO
- KOLIKO ETA HORTZALDIETAKO MINAK BARETZEKO
- UMEAREN KOMUNIKAZIO AFEKTIBOA SENDOTZEKO
- INMUNITATE-SISTEMA SENDOTZEKO

AMAIA TXINTXURRETA > ELGETA

Elgetako III. pintxo lehiaketan bost ostalarik hartu zuten parte: Elgeta hotelak, Iñaki jatetxeak eta Patxi, Bolatoki eta Haizea tabernek. Herriko hiru elkartetako ordezkariek osatutako epaimahaiak erabaki zuen Bolatoki tabernako pintxoa saritzea.

PINTXOAK TABERNETAN

Lehiaketara aurkeztutako pintxoak dastatzeko aukera egon zen, gainera; pintxo bakoitza euro baten. Bolatoki tabernak irabazitako pintxoa bezalako 60 saldu zituen eta arrakasta lortu zuen.

Mari Karmen Salas eta Jesus Lopez sukaldariak pintxo sarituarekin. J.A.

ARRASATE > DANTZA JAIALDIA

Urteurreneko azken ospakizun beroa

Jaialdi erraldoia egin zuten Txikitxu-Arrostaitz dantza-taldeen urteurrenak ospatzeko zapatuan, eta Uarkape txiki gelditu zen

Omenduak hunkituta. JOSETXO ARANTZABAL

Txikienak makil dantzarako prest. J.A.

Arrostaitz eta Oñatzeko dantzariak. J.A.

Adin guztietako dantzariak elkartu ziren eta bukaeran denak batu ziren. J.A.

IRATI GOITIA > ARRASATE

Txikitxu dantza taldeak 40 urte eta Arrostaitz taldeak 20 urte bete dituztela ospatzeko ekitaldi nagusia egin zuten zapatuan. Ia bi ordu inguruko saioa izan zen eta Euskal Herri osoko dantzak taularatu zituzten. Urte hauetan guztiotan dantza taldeetan aritu direnek hartu zuten parte, eta, hala, 5-6 urteko neska-mutikoetatik hasi eta 40tik pasatako beteranoak elkartu ziren. Arrasateko erraldoien, Arrasate Musikalen eta Oñatz dantza-taldearen babesa ere izan zuten, besteak beste.

'ZORIONAK'

Saioaren amaieran, urte hauetan horrenbeste lan egin duten Marga Merkader, Eugenio Gartzia, Iñaki Lizarralde eta Kepa Uranga omendu zituzten. Ikuskizuna *Zorionak* abestuz amaitu zuten.

Ospakizunari amaiera 300 lagun inguru batu zituen afariarekin eman zioten.

ARRASATE > OSPAKIZUNA

Adin tarte guztiendako ekintzak izan ziren Ikastola Egunean

Gosari erraldoia izan zen berritasun nagusia: 100 lagun batu ziren Ferixalekuan

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Aurten, bi berezitasun izan ditu Arizmendi Ikastolaren Egunak: bata, Perretxiko Egunarekin batera ospatu dutela; eta bestea, ekintza berri gisa, gosari erraldoia egin dutela LHko 3. eta 4. mailakoendako. Aitor Elizaran antolatzailea bereziki pozik zegoen ekintza horrek izan duen arrakastarekin: 100 bat lagun batu dira mahaiaren bueltan.

Adin guztietako ikasleendako zein helduendako egon zen zerbait domekako ospakizunean: Argitxoren urtebetetzea, txikienendako; herri kirolak eta Mihiluze, helduxeagoendako; Perretxiko Eguna DBHko 1. eta 2. mailakoendako; tailerrak eta gau ibiltaria, DBHko 2. eta 4. maila artekoendako; eta mendi bizikleta, batxilergoko ikasleendako. Ferixalekuan, Uarkapen, Herriko plazan, Kulturaten eta gaztetxean egin zituzten ekintzak.

Ikasleak, sokatiran. JOSETXO ARANTZABAL

ZER DIO DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEKO PRESIDENTEAK?

ZER DIO ARETXABALETAKO LORAMENDI EUSKARA ELKARTEAK?

GIZARTE ZERBITZUAK > LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

Larrialdian dauden guztiei laguntzen segitu edo ez hausnartzen

Jaurlaritzari dagokio laguntza horiek finantzatzea, baina aurten gastuaren erdia ere ez du kubrituko

UBANE MADERA > ARRASATE

Urtea bukatzerako Udalak 450.000 euro inguru gastatuko ditu larrialdi egoeran dauden herritarrei laguntzen.

Oraingoz, 424.988 euro gastatu ditu dagoeneko eta beste 280.673 euroko gastua hitzartuta dauka urte amaierara arte.

Izan ere, larrialdi egoeran dauden 220 herritar babesten ditu Arrasateko Udalak gaur egun.

GEHIENA ETXEBIZITZA GASTUETAN

Herriko erakunde nagusiak partituko dituen 450.000 euro horietatik 235.010 euro etxebizitza gastuetan laguntzeko emango ditu: alokairuak ordaintzeko, adibidez.

Beste 164.505 euro mantenu gastuetan laguntzeko emango ditu: komunitatea ordaintzeko, argindarra, gasa…

Eta gainerakoa (50.400 euro pasa) altzariak edo etxeko tresna elektrikoak erosten laguntzeko, etxeko konponketa lanak egiteko eta halakoetarako.

PENTSIODUN ASKO

Gaur egun, 220 herritar daude Arrasaten larrialdi egoeran, edo, behintzat, 220 lagunen eskaerak onartuta dituzte Gizarte Zerbitzuetan. "Denetik dago: adibidez, pentsio sistema aldaketarekin, pentsiodun askok jasotzen dituzte mantenu gastuak, familiak ere badaude, pertsona bakarrak, gazteak…" kontatu du Iñigo Garitanok, Udaleko Gizarte Zerbitzuen Saileko teknikariburuak.

EDOZEINEK, UNE ORO

Izan ere, edozeinek eska ditzake laguntzok. Eta urteko edozein momentutan. Horretarako Udal Gizarte Zerbitzura jotzea besterik ez dago. Hori bai, adibidez, orain (urrian) laguntzok eskatuz gero, urtea amaitu artekoa bakarrik jasoko luke eskatzaileak.

JAURLARITZAK ERDIA ERE EZ

Arrasateko Udalak azken urteotan izan duen joera zera izan da: beharrak dituzten herritar guztiak babestea, %100ean.

Berez, zerbitzu hori Eusko Jaurlaritzak finantzatu beharko luke, eta gero Arrasateko Udalari dagokio kudeaketa lanak egitea. Baina ez da horrela; eta adibidez, Arrasateko Udalak orain gastatu behar dituen 450.000 euroetatik, Eusko Jaurlaritzak 219.427 euro bakarrik bueltatuko dizkio Udalari.

DATORREN URTEAN, ZALANTZAN

Gauzak horrela, "datorren urteari begira hausnarketa egiten dabiltza Udalean, "irizpide berarekin segitu edo ez" erabakitzeko. Hala jakinarazi du Iñigo Garitanok, Gizarte Zerbitzuen Saileko teknikariburuak.

Hau da, orain arte moduan, laguntza eskaera guztiak onartzen jarraituko duen edo ez erabaki behar dute. Hori gurako lukete, baina ez dago zalantzarik "Udalak ekarpen fuertea" egin behar duela diru aldetik eta egoera ekonomikoak hori asko zailtzen duela. Udal teknikariak gaineratu duen moduan, "Udalak ez du derrigor larrialdi egoeran dauden herritarrak %100ean lagundu behar.

DATUAK

235
MILA EURO
235.100 euro etxebizitza gastuetan laguntzeko ematen ditu Arrasateko Udalak; adibidez, etxebizitzen alokairuak ordaintzeko, hipoteketan laguntzeko eta antzekoetarako.

164
MILA EURO
164.505 euro etxebizitzetatik eratorritako mantenu gastuetan laguntzeko izaten dira. Adibidez: komunitatea ordaintzeko, argindar edo gas kontsumo gastuak ordaintzeko eta abar.

50
MILA EURO
50.400 euro pasa etxebizitzetarako altzariak edo etxeko tresna elektrikoak erosteko, etxeko konponketa lanak egiteko edo oinarrizko beharrak ordaintzeko ematen ditu Udalak.

Eider Zubizarreta eta Saioa Uzkiano > Antolatzaileak

"Bizitza beste modu batean bizi izatea posible dela sentitzen baduzu, egiozu kasu horri"

U.M. > ARRASATE

Oraingo asteburuan, egubakoitzean (19:00etan) hasi eta domekara arte meditazio teknikak erakutsiko dituzte Uribe auzoan egingo duten ikastaro baten. Eider Zubizarretak (Arrasate, 1979) eta Saioa Uzkianok (Andoain, 1982) antolatu dute ikastaroa:

Zer da meditazioa?

Helburua da bizitza beste modu baten bizi izatea. Nork bere burua ezagutu eta norberaren esentzia bizi; gure mugak gainditu eta bakean bizi gure buruarekin eta munduarekin.

Zertan igartzen dira onurak?

Denean. Bizitza lasai hartzen bada dena aldatzen da. Adibidez, lan egin behar izatea eta ez sufritzea horregatik. Gozatzea egiten duzunaz. Ordu erdiko tartea baduzu, hori disfrutatzea gogoratu gabe lehenago zer egin duzun edo gero zer egin behar duzun.

Asteburu baten ikas daiteke?

Saioa Uzkiano eta Eider Zubizarreta. U.M.

Bai. Lau teknika dira. Guk teknikak entregatu eta horiek zelan erabili azalduko dugu. Kontua gero praktikatzea da. Oso-oso teknika errazak dira eta edozein momentutan praktika daiteke: lantokian, autoan gidatzen, poteoan… ez da ezer aldatu behar. Asteburu baten probatuta, dagoeneko sentitu egiten da, benetan.

Zelako ikastaroa izango da?

Egingo dugu hitzaldi-sarrera bat (19:00), eta gero hasiko gara teknikekin. Egubakoitzean, 20:00-22:00etara eta zapatu eta domekan 10:00etatik 17:00etara.

Baldintzaren bat behar da?

Ez, edozeinek parte har dezake, lokalak 40-50 bat lagunendako lekua du eta prezioa 200 euro da.

Izena non eman behar da?

Honako telefonoetan: 943 79 12 95 edo 685 73 21 21; edo *rosalina_garay@yahoo.es* helbidean. Edozelan ere, egunean bertan, sarrera hitzaldia entzun ostean erabaki daiteke ikastaroa egin gura den edo ez.

Besterik gura duzue esan?

Bizitza zela bizi duzun konforme ez bazaude eta igartzen baduzu badagoela beste modu bat bizi izateko, egiozu kasu horri. Bada beste modu bat: bakean, lasai…

Bizkaia etorbidean dago igogailu publikoa. U.M.

ZERBITZUAK > IGOGAILU PUBLIKOAK

Igogailuak badu irekiera data: urriaren 29a

Erremate lanak bukatu arte ez dute gura igogailua herritarrek erabiltzea

U.M. > ARRASATE

Hilabeteko atzerapenarekin ibili arren, azkeneko lanak egiten dabiltza, eta hil honen amaieran zabalduko dute Bizkaia etorbideko igogailu publikoa. Orduantxe zabalduko dute obra bukatuta bere osotasunean.

Hirigintza Sailetik esandakoaren arabera, falta diren erremate lanak egiten dabiltza. Eta, berez, igogailua erabiltzeko moduan egongo den arren, obra egiten dabilen enpresak, Oronak, ez du gura herritarrak igogailuan ibiltzea eurak lanean dabiltzan bitartean.

Bizkaia etorbideko garajeen eraikinari solairu bat gehitu eta haren eta Larragain kalearen artean oinezkoendako pasabidea eraikitzea izan da orain gauzatu dituzten obren helburua.

KULTURA > LITERATURA

Biharko idazleen bila, Arrasate Lehiaketen 24. edizioa dator

Poesia, ipuin, komiki eta bertso-paperen lehiaketa aurkeztu du AEDk; entregatzeko azken eguna otsailaren 4a izango da

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Etorkizuneko idazle eta literaturagileen bila, AEDk Arrasate Lehiaketak ekimena abiarazi du. Erabat errotuta dauden lehiaketak dira dagoeneko eta aurten 24. edizioa biziko dute. Arrasate eta inguruko 17 urtetik beherako gaztetxoendako antolatutako ekimenak lau lehiaketa izango ditu: poesia, ipuina, komikia eta bertso-paperak.

Euskarazko obra originalak eta sekula saritu, argitaratu edo emititu gabekoak aurkeztu behar dituzte gaztetxoek eta gaia librea izango da lehiaketa guztietan. Aldi berean, parte-hartzaile bakoitzak gura beste lan aurkez ditzake eta lanok entregatzeko azken eguna otsailaren 4a da.

FINALISTAK, APIRILAREN 8AN

Idazlanak hiru kopiatan, tarte bikoitzez eta ordenagailuz idatzita entregatu behar dira. Lan guztiak lelo batez sinatuko dira eta horrekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztu behar da, azalean lelo bera duena, ikasturte eta lehiaketa zehaztuz. Barruan, berriz, egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa jarri beharko dira. Helbide honetan entregatu behar dira lanak: Pablo Uranga 6 behea, 20500, Arrasate.

Bestalde, finalistak apirilaren 8an jakinaraziko dira GOIENKARIAn eta AEDren webgunean. Eta sari banaketa ekitaldia, azkenik, apirilaren 14an egingo dute. Opariak eta dirua emango dizkiete irabazleei.

ANTZERKI TAILERRA

Azaroaren 12tik aurrera, antzerkia

Azarorako antzerki tailerra antolatu du AEDk, "sormena landu eta barruan daramagun aktorea kanporatzeko". Egubakoitz arratsaldeetan elkartuko dira Kulturateko Loramendi gelan, 18:00etatik 20:00etara. AEDko bazkideek edo Topakide txartela dutenek 30 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek, 35 euro. Izena eman edo informazio gehiago jasotzeko 943 77 12 28 telefonora deitu edo *aed@aedelkartea.com* helbidera idatzi behar da. Iurgi Etxebarria antzerkigile aretxabaletarra izango da irakaslea.

Aurreko antzerki tailerrean moduan, Iurgi Etxebarria izango da irakaslea. J.B.

Jose Mari Etxabe > ARTE elkarteko presidentea

"Azkar bizi den gizarterako lasaitasuna da tailagintza"

J.B. > ARRASATE

Nafarroa etorbideko egoitza berrian "oso gustura" daudela dio Jose Mari Etxabek (Arrasate, 1949). Ikasturte berria hasi dute; ateak zabalik dituzte edonorendako. Interesatuak dei dezala 620 17 42 55 telefonora.

Nondik datorkizu tailarako duzun zaletasuna?

Santamasetako artisau feria baten ezagutu nuen eta polita iruditu zitzaidan. Artisauekin harremanetan jarri eta hala hasi nintzen tailagintzaren munduan, duela 20 edo 21 urte.

Tailagintza ezagutzeaz bat sartu zinen ARTE elkartean?

Asko gustatu zitzaidanez, handik gutxira sartu nintzen orduan sortu berri zen ARTE elkartean. Izan ere, aurten 26 urte bete ditu elkarteak.

Ikasturte berria hasi duzue eta jendeari egin diozue gonbita. Zein ekarpen egin diezaioke tailak hasiberri bati?

Tailagintza ezagutarazi gura dugu herrian eta horretarako jendeak izena ematea beharrezkoa da. *Slow* mugimenduarekin harreman estua du. Azkar eta presarekin bizi den gizarte honetarako lasaitasuna da tailagintza, pazientziaz jarduteko zaletasun bikaina.

Bi printzipio garrantzitsu ditu: aipatu dudan pazientzia, batetik, eta kalitatea, bestetik. Izan ere, kantitatea baino gehiago, kalitatea da garrantzitsua tailagintzan. Tailatzen ari zarenean ezin duzu artelanaren amaiera eguna zehaztu; lan bakoitzarekin lanak behar duen denbora pasako duzu, ez gehiago eta ez gutxiago. Arin joateak ez du emaitza ona esan nahi.

Jose Mari Etxabe, ARTE elkartearen egoitza berrian, lanean. JOKIN BEREZIARTUA

Harrera planik baduzue?

Hasteko, erremintak erakutsiko dizkiegu eta gero zenbait kontzeptu erraz irakatsi: egurreko beta eta kontrabeta zer den azaltzea, esaterako. Egur motak bereizten ere ikasiko dute, eta ikasitakoa praktikan jartzeko kutxa bat egingo dute.

"Slow' mugimenduaren barruan koka daite taila; arin joateak ez du emaitza ona esan nahi"

Egoitza berrian zer moduz?

Lokala oso ondo dago, oso gustura gaude. Erguingo egoitzan ordutegia oso mugatuta genuen, bizilagunengatik. Zarata askotxo ateratzen dugu eta ulertzekoa da bizilagunen ezinegona. Orain, baina, askatasun handia dugu.

'Sayonara baby', Itxungi irratiko lehen saioa

Itxungi irrati librea hasi da autoekoiztutako irratsaioak emititzen FMko 107.0 dialean. Lehena joan den eguaztenean izan zen, *Sayonara baby*. Mikel Arregi eta Koldo Carrilloren gidaritzapean, musika eta literatura izango dituzte ardatz. Aurrerantzean, beraz, eguaztenero dute hitzordua entzulearekin, 21:00etatik 22:00etara. Horrez gain, Arrasateko pertsonaia ezberdinak elkarrizketatuko dituzte zuzenean; lehen irratsaioan Aritz Unamuno Des-kontrol taldeko abeslari ohia izan zuten gonbidatu.

MONDRABERRI

Iazko azoka. GOIENKARIA

MERKATARITZA > BEDELKAR ELKARTEA

Azoka egingo du Bedelkarrek frontoian azaroaren 6an eta 7an

Denboraldiko produktuak salduko dituzte, baina beherapenekin; 21 dendak hartuko dute parte

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Bedelkar dendarien elkarteak III. azoka egingo du Udal Pilotalekuan.

Azaroaren 6an, zapatua, eta 7an, domeka, egingo dute azoka: zapatuko ordutegia izango da 10:00etatik 20:00etara eta domekakoa, berriz, 11:00etatik 14:00etara.

DENBORALDIKO PRODUKTUAK

Azokan parte hartuko dute elkarteko 21 dendak: ume zein nagusien arropa-dendak, zapata-dendak, lurrindegiak... Guztiak egongo dira pilotalekuko kantxan egokituko dituzten erakusmahaietan.

Aipatzekoa da denboraldiko generoa izango dutela salgai eta, gainera, deskontuak egingo dituztela.

Bestalde, azokaren giroa alaitzeko musika ere egongo da: zapatu goizean Musika Eskolako Txaranga Gaztea ibiliko da; zapatu arratsaldean, trikitilariak; eta domeka goizean, txistulariak. Horrez guztiaz gain, umeendako puzgarriak ere jarriko dituzte azokak iraun bitartean Udal Pilotalekuaren sarreran.

%5EKO DESKONTUAK

Bestelako ekimenak ere egingo ditu dendari eta ostalarien elkarteak azaroan barrena. Hain justu ere, %5eko deskontuak egingo dituzte, erosketak Bedelkar txartelarekin ordainduz gero –elkarteko dendetan eskura daiteke–. Deskontu hori hil osoan egingo dute, aste osoan barrena.

Bestalde, bezeroen artean banatzeko 5.000 poltsa atera dituzte. Oihalezko poltsak dira eta helburua da plastikozko poltsen erabilera txikitzea, Bedelkar elkarteko ordezkariek esan dutenez.

JENDARTEA > ELKARTEAK

Gorrekin komunikazioa hobetzeko ikastaroa abian

Keinuen hizkuntza lantzen hasteko ikastaroa deitu du Aransgik eta izenematea zabalik dago

M.B. > BERGARA

Aransgik, Giopuzkoako pertsona gorren familien elkarteak, gorrekin komunikazioa hobetu nahi dutenendako keinuen hizkuntza lantzen hasteko ikastaroak antolatu ditu, Udaleko Ongizate Sailaren laguntzarekin.

Ikastaroak Aransgin izango dira. Urtarrilean hasiko dira eta 30 orduko iraupena izango dute. Lehen mailako eskolak eguaztenetan izango dira, 19:00etatik 21:00etara. Bestalde, sakontze mailak ere badaude.

Izenematea dagoeneko zabalik dago eta 85 euro kostatzen da. Izena emateko edo informazio gehiagorako, jo lehenbailehen Aransgiren egoitzara edo 943 76 27 03 telefonora zenbakira deitu.

1967A EZKERO LANEAN

Aransgi 1967an sortu zen, haur gorren familia talde baten ekimenez, euren seme-alaben beharrei arreta egokiaren bidez erantzuteko asmoz. Ordutik hona, Aransgin Gipuzkoako gor guztien bizi kalitatea hobetu eta gorreriak pertsonaren eguneroko bizitzan eragiten dituen oztopoak arintzeko lanean jarraitzen du.

Horretarako, entzumen zailtasunak dituzten pertsonen alderdi mediko eta psikologikoez eta hezkuntza, lan, gizarte eta familia alorrez ere arduratzen dira.

Aransgiko umeak ipuina irakurtzen. ARTXIBOA

OIHANA ELORTZA

Grafiti berriak Labegaraietako kiroldegian

Aurreko zapatuan grafitiak margotzen jardun zuen lagun talde batek Labegaraietan; kiroldegiko paretan, hain justu ere.

Goizean oinarri urdina eman zioten paretari gazteek, eta arratsaldean ekin zioten irudiak egiteari. Eta askotariko irudi eta kolorez jantzi dute kiroldegiko pareta. Eskailera gainera igota, espraiarekin, arrabolarekin... hainbat irudi fantastiko margotu dituzte, besteak beste. Irudian ikusten denez, ez zuten lan makala egin gazteok kiroldegiko paretan.

oharrak

KINTADA

> 1943an jaiotakoek (55eko kintoak) bazkaria egingo dute

Azaroaren 20an egingo dute, Erreki erretegian. 14:00etan txikiteoa eta talde argazkia egingo dituzte eta 14:45ean izango da bazkaria. Izenematea Errekin da, 12 euro aurreratuta.

KINTADA

> 1940an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 6an

Torrekuan egingo dute, 14:30ean. 13:30ean meza egongo da Sierbetako elizan. Izena emateko deitu 943 76 35 76 edo 943 76 30 26 telefono zenbakira.

KINTADA

> Realzaleek autobusa erreserbatuko dute aurrerantzean

Coruñako Deportivo taldearen aurkako partidutik aurrera (urriak 25) erreserbatuko dute, Anoetan jokatuko diren partiduetara joateko. Txartelen kolorea zuria izango da partidu guztietarako eta Deportivo tabernan hartuko dira. Horretarako, Realeko karneta eta zaleen taldekoa aurkeztu behar dira. Prezioa 2 euro da.

KINTADA

> 1947an jaiotakoek afaria egingo dute azaroaren 6an

Tartufo jatetxean egingo dute, 21:00etan. Izena emateko 60 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako 009.1.09901.9 zenbakian azaroaren 2a aurretik. Autobusa egongo da eta 20:30ean abiatuko da, Santa Marina ostetik.

KINTADA

> 1968an jaiotakoek afaria egingo dute urriaren 30ean

19:30erako egin dute hitzordua, Deportivo tabernan. Afaria 22:00etan izango da, Azpeitxi jatetxean.

OSPAKIZUNA

> Elkororen askatasuna ospatzeko bazkarirako txartelak salgai

Hilaren 31n izango da bazkaria eta txartelak eskura daitezke Eusebion, Kortazarren, Deportivo, Ariznoa eta Arranon, 20 eurotan.

EUSKARA > ELKARTEAK

Familiendako orientazio zerbitzuak segitu egingo du

Etxadi elkarteak emango du zerbitzua, hirugarren urtez; eta edonorendako da

Iaz herritarrek egindako 125 kontsulta jaso zituzten

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Hirugarren urtez, Udalak familientzako orientazio-zerbitzua eskainiko du. Etxadi elkarteak emango du zerbitzua eta edonork jo ahal izango du orientazio zerbitzura informazio eta orientazio eske.

Seme-alaben heziketarako aholkularitza zerbitzua da, eta, orientazio zerbitzua eskaintzeaz gain, prestakuntza eta prebentzio gaiak ere ikertzen ditu, besteak beste.

HARRERA ONA

Udaletik aurreratu dutenez, harrera ona du zerbitzu horrek eta adibide moduan datu bat eman dute: 2009an herritarrek egindako 125 kontsulta jaso zituzten Etxadin. Udaletik gehitu dute Etxadik zerbitzua eskaintzen duen biztanle gehiagoko herrietan baino kontsulta gehiago jaso dituztela Bergaratik.

Kontsultak egiteko *www.bergara.net* webgunera jo behar da eta *Familiendako orientazio psikologikorako zerbitzua* izeneko loturan klikatu. Han dagoen formularioa bete eta Etxadikoek erantzun egingo dute.

DATUA

125

KONTSULTA

2009an herritarrek 125 kontsulta egin zizkieten Etxadiko adituei. Udaletik aurreratu dutenez, herri handiagoetan baino kontsulta kopuru handiagoa.

HITZALDI SORTA

Horrekin batera, hiru hitzaldiko sorta ere antolatu du Udaleko Ongizate Zerbitzuak gai beraren bueltan. Lehena azaroaren 3an izango da, 18:00etan, osoko bilkuren aretoan, eta landuko duten gaia *Gurasoen autoritatea, seme-alaben garapenean oinarri*.

Bigarrena otsailaren 2an izango da eta *Nola erabili teknologia berriak familian* izango dute hizpide; hirugarrena maiatzaren 4an izango da, eta gaia: *Nerabezaroa, familia eta drogak*.

TEKNOLOGIA BERRIAK

Beste 13 ikastaro azaroan KZgunean

Izenematea zabalik dago eta, ohi bezala, ikastaro guztiak doan izango dira

M.B. > BERGARA

KZguneak aditzera eman ditu azaroko ikastaroak eta izenematea zabalik dago.

Guztira, 13 ikastaro izango dira; hemen lehenengo hamabostaldikoak: *Internet+e-Administrazioa*, azaroaren 2tik 12ra, astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara; *Zuhaitz genealogikoa*, azaroaren 3an, 09:00etatik 11:00etara; *Ikus-entzunezkoak*, azaroaren 4an, 18:00etatik 20:00etara; *Twiter*, azaroaren 9an, 18:00etatik 20:00etara; *Lana eta familia bateragarri egin*, azaroaren 11n, 09:00etatik 11:00etara; *Youtube*, azaroaren 12an, 09:00etatik 11:00etara; eta *Irudi digitalaren tratamendua*, azaroaren 15etik 16ra, astelehenetik martitzenera, 16:00etatik 18:00etara.

Ikastarootarako izenematea astelehenetik egubakoitzera da, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara egoitzan eta *tutor.bergara@kzgunea.net* helbidean.

JENDARTEA > GAZTEAK

Datorren zapatuan berriro ere dantzara

Denboraldi berriko lehenengo DJ jaialdian ez zuten hutsik egin gaztetxoek; bigarrena, zapatuan izango da, ohi bezala Zabalotegi aretoan

Gustura egin zuten dantza aurreko zapatuan nerabeek Zabalotegiko jaialdian. JOSETXO ARANTZABAL

M.B. > BERGARA

Ehun nerabe inguru batu ziren aurreko zapatuan Zabalotegin egindako DJ jaialdian. Denboraldi berriko lehenengo jaialdia zen eta gaztetxoek –12 eta 14 urte artekoendako da– gustura hartu zuten. Askok dantza egin bazuten ere, beste batzuek nahiago izan zuten musika entzuten lasai egon eta lagunekin berriketan egin, alkoholik gabeko diskoteka baten egongo balira bezala.

Bada, horretarako guztirako beste aukera bat izango dute interesa duten nerabeek datorren zapatuan, hilaren 30ean, 18:30etatik 21:30era bitartean, bigarren DJ jaialdia orduan egongo da-eta. Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatu du DJ jaialdi sorta hori eta urte bukaerara arte hilean birritan egongo da. Urte bukaerara arteko saioak azaroaren 13an eta 27an eta abenduaren 11n izango dira. Datorren urtean ere jarraituko du ekimenak, egunak zehazteke dauden arren.

> AISIALDIA

Agorrosingo ludotekan izena emateko epea zabalik dago

Zerbitzua 5 eta 12 urte arteko gaztetxoendako da eta bi hezitzaileren ardurapean egongo dira.

Zerbitzua dagoeneko martxan dago, Agorrosin Ekintza Guneko bigarren solairuan, astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 20:00etara. Urteko kuotari dagokionez, berriz, 45 euro ordaindu behar da.

JENDARTEA > OSPAKIZUNAK

Primi Erostarbe zena omenduko dute zapatuko trikiti jaialdian

Lizargarateko trikitizale elkarteak antolatu du jaialdia bigarren urtez jarraian; zapatuan izango da, 18:30ean, Santa Ana antzokian

ARANTZAZU EZKIBEL> OÑATI

Trikitia, panderoa eta irrintziak izango dira protagonista zapatuan Santa Anan. Herriko trikitizaleek jaialdia egingo dute, bigarren urtez jarraian. Zapatuan izango da, 18:30ean, eta dagoeneko sarrerak salgai daude 10 euroren truke kultura etxean eta Urbia eta Umerez tabernetan. Egunean bertan ere salduko dituzte sarrerak.

PRIMI EROSTARBERI OMENALDIA

Protagonistak, baina, ez dira trikitia, panderoa eta irrintziak bakarrik izango; jaialdiko protagonista nagusia Primi Erostarbe izango da (1907-1995). Araozko Zumalde baserrian jaio zen Erostarbe; handik Elgetara joan zen bizi izatera eta gero Donostiara. Euskal Herriko emakume pandero-jotzaile eta irrintzilari ezagunenetarikoa izan da.

Jaialdiko kartela. GOIENKARIA

PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

Jaialdian parte hartuko dute: Oñatiko Musika Eskolak, Ospas eta Janirek, Izer aita-semeek eta Alabier, Landa aita-semeek, Joseba Tapia eta Eztanga anai-arrebek, lajatarrek eta oriatarrek.

Ekitaldiaren amaieran izango da omenaldia: ikus-entzunezko bat jarriko dute, eta araoztar batek Erostarberen bizitza kontatuko du. Gainera, trikiti elkartekoek panderoarekin lagunduta koplak kantatuko dituzte.

Jaialdiaren ondoren, afaria egingo dute Etxeberria jatetxean. Afarira joan gura dutenak txartelak erosi beharko dituzte Urbia eta Umerez tabernetan 25 euroren truke. Dagoeneko salgai daude txartelak.

ONGIZATEA > NAGUSIAK

Su detektagailuen gaineko informazioa ematen hasiko dira gaur etxerik etxe

A Tiempo izeneko enpresako langileak joango dira 80 urtetik gorako nagusiak bizi diren etxeetara informazioa ematera

A.E. > OÑATI

Gaurtik aurrera, A Tiempo izeneko enpresako langileak su detektagailuen gaineko informazioa banatzen hasiko dira. Oñatiko Udalaren identifikazio txartelarekin joango dira 80 urtetik gorakoen etxeetara langileak.

ESKAERA ORRIA BETEKO DUTE

Informazioa jaso ondoren, aparailua jarri gura duenak enpresak berak emandako papera bete beharko du etxean bertan. Hainbat datu bete beharko dituzte, eta baita etxearen berezitasunak jaso ere.

Azkeneko pausoa detektagailua jartzea izango da. Eskatzailearendako ez du inolako kosturik izango su detektagailua jartzea etxean.

> KULTURA

Udalak antolatutako eskulan ikastaroetan matrikula egiteko epea urriaren 30era arte da

Izenemate epea amaituta eta zerrendak irtenda, matrikula egiteko epea dute orain eskulan ikastaroetan parte hartu behar dutenek. Horretarako, urriaren 30era arteko epea izango dute. Ikastaroetan 218 lagunek eman dute izena; baina 194 lagunendako tokia bakarrik dago. Zozketa bidez aukeratu dituzte parte hartuko dutenak. Aukeratuek bakarrik egin behar dute matrikula.

> GAZTEAK

Mahai-futbol txapelketa tailerrean ikasitakoa erakusteko

Gaztelekuko txapelketa beteranoenak edizio berria beteko du egubakoitzean 18:30ean: 15. mahai-futbol txapelketa jokatuko dute. Miguel Martin irakaslearekin ikasitako trikimailuak erakusteko aukera izango dute gaztetxoek. Parte hartu gura dutenek eguena baino lehen eman beharko dute izena gaztelekuan.

> TXAPELKETA

Zapatuan xake jokalari onenen arteko lehiak gaztelekuan

XVI. xake txapelketan izena eman gura duenak urriaren 28ra arte izango du aukera, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Izenematea doan izango da oñatiarrendako; gainontzekoek 4 euro ordaindu beharko dute. Txapelketa suitzar erara jokatuko da, sei itzulira eta jokalari bakoitzak 15 minutu izango ditu bandera jaitsi arte.

A.E.

Ugarkaldeko haur parkea eta lorategia zabalik daude

Ugarkalde auzo berriko urbanizazio lanak martxa onean doaz; dagoeneko zabaldu dute haur parkea eta lorategia. Sukia eraikuntza enpresa arduratu da lan horiek egiteaz, baina haur parkearen eta lorategiaren gestioa eta mantetze-lanak Udalak hartuko ditu bere gain. Bestalde, abuztuan zabaldu zuten Ugarkaldeko azken etxetik (seigarren zenbakidun etxea eta Artzubi baserri artetik) errepide nagusira irteteko bidea; hortik, baina, Olakua aldera bakarrik har daiteke. Urbanizazio lanak amaitzeko falta dena da azken bi eraikinak bukatzea.

ZER DIO TXATXILIPURDIK?

ZER DIO ITZIAR LAMARAINEK?

AISIALDIA > HAURRAK

Gaztelekuko sotoa zabalik dago aste bukaera eta jaietan

Haurrek gurasoen zaintzapean egon behar dute

A.E. > OÑATI

Herriko jaien ostean berriro ere zabaldu dute gaztelekuko sotoa herriko umeendako. Aste bukaeretan eta jaiegunetan egongo da zabalik, 10:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Sotoa erabili ahal dute 7 urte arteko umeek. Gaztelekuko arduradunek adierazi dute sotoan ez dagoela begirale zerbitzurik; horregatik, haurrek gurasoekin edo zaindariekin egon behar dute sotoan dauden une oro.

EGURALDIAK BALDINTZATZEN DU

Eguraldi txarra egiten duenean egoteko leku itxi bat izatea da sotoaren helburua. Arduradunek adierazi dute asko erabiltzen dela sotoa, batez ere eguraldia txarra dagoenean.

Haurrek jolas egiteko jostailuak dituzte sotoan, eta nagusiendako, ostera, kafe-makina dago. Mahaiak eta aulkiak ere badaude.

ARETXABALETA > ELKARTASUNA

Egubakoitzean da udazkeneko azken odol ateratze saioa

Urrian egin dituzten bi saioetan 96 lagunek eman dute odola; gazteak animatu gura dituzte odol emaile izatera

Joan den astelehenean egindako saioan bi lagun odola ematen. RAMON ERAÑA

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Udazkeneko odol ateratze saioak egiten dabiltza asteotan Arabako odol bankuko kideak, eta azken saioa egubakoitzean, hilak 29, egingo dute. Osasun etxean izango dira erizainak (16:15-20:00) odol emaileen zain.

100 LAGUN ODOLA EMATEKO GERTU

Dagoeneko bi odol ateratze saio egin dituzte urrian gurean, eta guztira 100 lagun izan dira odola emateko gertu agertutakoak; hala ere, batzuei ez emateko gomendatu diete eta 96k eman dute. Odol emaileen elkarteko ordezkari Ramon Eraña pozik azaldu da kopuru horrekin: "Azken hiru urteotan eman barik egon direnak berriro hasi dira etortzen, eta oso garrantzitsua da hori".

Udaberrian egindako saioetan 137 lagunek eman zuen odola. Orduan pozik azaldu ziren aretxabaletarrek emandako erantzunarekin, baina oraingoan hori gainditu egingo dutelakoan daude. Bide batez, gazteak animatu gura dituzte odol emaile izatera.

ODOL EMAILEEN LOTERIA

Bestalde, odol emaileen elkarteak loteria atera du, urtero legez, hiru euroren truke; hona zenbakia: 18.753. Loteria hori erosi gura dutenak Ramon Erañarekin egon daitezela –telefono zenbakia: 943 71 25 26.

TXATXILIPURDI

Gaztelekuko gazteenak pozik lehenengo jardueretan

Urrian hasi du ikasturtea Atxagazte gaztelekuak eta jarduera asko dabiltza egiten. DBHko lehenengo mailakoekin, hau da, lehenengoz bertara hurreratutakoekin irteera egin dute gaztelekuaren berri emateko. Elosuko aterpetxean egon dira, eta, askorik ez izan arren, elkartutakoek ezin hobeto pasatu dute.

Aste bukaeran, monozikloan ibiltzen ikasi eta surfean jardun dute Zarautzen. Eta datorren aste bukaeran, film labur tailerra egingo dute: filma grabatu eta gero blogean jarri, aurretik egindako moduan.

ESKORIATZA > KULTURA

Surfin Kaos taldea azaroan, Aitzorrotz elkartearen eskutik

Hilaren 13an izango da; horrez gain, ikus-entzunezkoa eta ardo dastatzea antolatu ditu

M.A. > ESKORIATZA

Aitzorrotz kultura elkarteak gertu dauka azaroko egitaraua: ikus-entzunezkoa, kontzertua eta ardo dastatzea.

DISKO BERRIAREN AURKEZPENA

Azaroaren 11n, eguena, *Gasherbrum II* ikus-entzunezkoa eskainiko du kultura etxean (19:00). Arrasateko talde batek egindako espedizioaren nondik norakoak ezagutzeko aukera eskainiko diete eskoriatzarrei.

Azaroaren 13an, zapatua, Surfin Kaos taldea *Goizalde surrealistak* diskoa aurkeztera etorriko da Inkernu tabernara (22:30). Aurten kaleratu du azken diskoa eta freskotasun eta heldutasun handiko lana aurkeztuko du, surf eta hard rock ukituekin. Eta azaroaren 27an, zapatua, ardo dastatze ekitaldia egingo dute Herriko Plazan (18:30).

AITZOROCK JAIALDIKO SARRERAK

Jaialdia –Gatibu, Zea Mays, Amaiur eta Pastors of Muppets– egingo du abenduaren 11n Aitzorrotz kultura elkarteak, eta sarrerak dagoeneko salgai dituzte. Hona Debagoieneko salmentaguneak: Eskoriatzan, Aldatz, Inkernu eta Goxo Txiki; Aretxabaletan, Txiki Bar eta Orly; Arrasaten, Irati eta Ekaitz; Bergaran, Herriko taberna; eta Oñatin, Aker. Gainera, Internet bidez ere eros daitezke. Aurrez erosiz gero 13 euro da sarrera, eta egunean, 16 euro.

oharrak

ARETXABALETA

> Ezohiko osoko bilkura gaur

Hiltegiaren gaineko erabakia hartzeko osoko bilkura egingo du udalbatzak gaur (18:00).

ERRETIRATUAK

> Perretxikoen gaineko berbaldia bihar, Basotxon

Bergarako Jose Mari Larrañaga aditua izango da perretxikoen gainean berba egiten Basotxon bihar (17:30).

ZINEMA

> '80 egunean' filma eguenean eta 'Centurión' aste bukaeran

Zineklubaren barruan, *80 egunean* euskal filma emango dute eguenean (19:30); 4 euro.

Hilaren 29an eta 30ean (22:00) eta 31n (19:30) *Centurión* filma izango da. Umeek *Toy Story 3* izango dute domekan (17:00).

DEIA

> 'Malko gorriak' DVDa salgai

Espainiako gerra Aretxabaletan zelan bizi izan zen jasotzen duen *Malko gorriak* DVDa salgai daukate Arkupe kultura etxean –12 euro.

ESKORIATZA

> Ipuin kontaketa umeendako eguenean

Giza balioak lantzeko ipuin kontaketa saioa egingo du Lur Korta kontalariak eguenean, hilak 28, bibliotekan (18:00).

AISIALDIA

> Eskulanak egingo dituzte Tortolis ludotekan

Eskulan saioa izango dute 7 eta 12 urte artekoek ludotekan egubakoitzean, hilak 29, (18:00).

IRIARTE
Umeen denda • Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

Bittor Rodriguez > Ilatargi elkarteko kidea

"Astrologia oso interesgarria da; zeruko lengoaia ezagutzeak zirrara handia sortzen du"

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Sei bat lagun astronomiari buruzko ikastaroa egiten ari dira egunotan Elgetan. Kutxaren gizarte ekintzak UNED-Bergararekin elkarlanean eskainitako ikastaroa da. Manu Arregirekin batera Bittor Rodriguez irakasle lanak egiten ari da. Astronomiak zenbateraino engantxatzen duen kontatu digu.

Zer landuko duzue astronomiako ikastaro honetan?

Zerua miatzeko hainbat argibide emango ditugu, konstelazioak desberdintzen ikasiko dugu, eta posizio astronomikoa topatzen... Gainera, esplorazio espazialaren lorpenak ikusiko ditugu eta bizitza estralurtarraren gainean egin diren azken aurkikuntzen berri emango dugu.

Bizitza estralurtarra diozu. Badago, ala?

Ez dakigu oraindik, baina jendeak ezer gutxi daki egiten ari diren aurkikuntzen gainean. Estatuan biologia estralurtarra ikertzeko zentro bat dago eta bertan 200 ikerlari ari dira lanean. Aurkikuntza interesgarriak egin dituzte. Esaterako, gure eguzki sistematik kanpo bizitzarekin bateragarriak diren ezaugarriak dituzten planeta berriak aurkitu dituzte. Zientifikoki, beraz, bizitza estralurtarra posiblea da.

Eta esplorazio espazialari dagokionez, gizakia Ilargian izan da?

Bai, zalantzarik gabe. Logikak ematen dituen argudio asko dauzkagu eta, gainera, erraz ikus daitezke. Ilargitik harri mordoa ekarri zituzten eta Gasteizen harri horietako bat ikusteko aukera izan genuen. Ilargian, bestalde, ispilu bat dago gaur egun distantzia neurtzeko erabiltzen duguna. Izpi bat bidaltzen dugu Lurretik eta ispilu horrek bueltan bidaltzen du. Urtero neurtzen dugu Ilargia zein distantziara dagoen. Azkenik, espazio-zunda batek Ilargian utzitako aztarnak daude. Lurretik erraz ikus daitezke.



Bittor Rodriguez, eguenean, Elgetako kultura etxean. L.Z.

Eguenean, eguraldiak oztopatzen ez badu, behaketa astrologikoa egingo dute Asentzion

Zertarako balio du astrologiak?

Arrazoi praktiko asko daude. Esaterako, edonon zaudela iparra eta hegoa kokatzeko, oskarbi dagoen gau baten zerura begiratu eta zer ikusten ari zaren ulertzeko. Maila zientifikoagoan, berriz, Eguzkia izar bat gehiago dela eta bost milioi urte barru itzali egingo dela jakiteko.

Planetarioak gomendatzen dituzu?

Bai; oro har, zientzia museo guztiak gomendatzen ditut. Arazo zientifiko baten dimentsioa ulertzeak edo zeruko lengoaiaren esanahiaz jabetzeak zirrara handia sortzen du. Eta astrologiak engantxatu egiten du.

ANTZUOLA > KULTURA

Musika eta imitazioak Goio Arrietaren eskutik

Aretxabaletarrak Andres Calamaro eta Alex Sarduiren imitazioak egingo ditu

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Goio Arrieta aretxabaletarrak *Harri irratixe* ikuskizuna eskainiko du Torresoroan datorren egubakoitzean, azaroaren 5ean.

Musikazalea da Arrieta, eta, hain zuzen, musikan oinarritutako ikuskizuna eskainiko du. Bakarrizketa saioa izango da, musikari eta pertsonaia ezagunen imitazioekin. Besteak beste, Andres Calamaro eta Alex Sarduiren imitazioak egingo ditu Arrietak. Pertsonaien istorioak kontatu eta kantatu egingo ditu. Pertsonaia batetik bestera pasatzeko, Arrietak atrezzoa aldatzen duen bitartean, bideoklipak jarriko dituzte aretoan. 22:00etan izango da ikuskizuna.

ARGAZKI ERAKUSKETA

Bestalde, *Antzuolarrak munduan zehar* programaren barruan, hilaren 28an, Sergio Morenok Brasilera egindako bidaia azalduko du. Goizperko lankidea da Moreno; hala, Mundukidek gonbidatuta bidaiatu zuen Brasilera. Olaranen izango da emanaldia, 18:30ean.

MENDI IRTEERA GORBEIARA

Mendi irteeran interesatuek izena eman beharko dute aurrez. Horretarako, Arrolak Olaranen duen bulegora (3. bilera gela) joan beharko dute hilaren 27an 19:00etatik 20:30era. Bestalde, telefonoz ere eman daiteke izena; horretarako, Arrola elkarteko presidenteari deitu behar zaio –Iker Manso– 635 205 841 zenbakira hilaren 27a baino lehen.

Mendi irteera izango da urriaren 31n, domeka. Egun osoko irteera izango da Gorbeiara. Edonork egiteko modukoa dela adierazi dute.

ARAMAIO > KULTURA

Sendabelarren ikastaroan bederatzi lagun ari dira

Txirritola euskara elkarteak antolatu du ikastaroa; Zeanuriko aditu Gabriel Vazquezen eskutik hiru saio izango dira

E.M. > ARAMAIO

Bederatzi lagun ari dira Txirritola euskara elkarteak antolatutako sendabelarren ikastaroan. Emakumeak dira nagusi, gizonezko bakarra ari da-eta. Gabriel Vazquez zeanuriztarra da irakaslea. Hainbat liburu argitara eman ditu Vazquezek, tartean *La magia de las hierbas* eta *Plantas medicinales en el País Vasco*. Sendabelarrak ezagutu, infusioak gertatzen ikasi eta sendabelar ezberdinen ezaugarriak bereiztea da ikastaroaren helburua. Lau orduko hiru saio dira aurreikusitakoak eta zapatuan egin zuten bigarrena; eguraldi ona aprobetxatuta irteera egin zuten ikasleek.

HERRI BAZKARIA ZAPATUAN

Zapatuan, urriaren 30ean, Erretiratuen Eguna ospatzeko herri bazkaria izango da kiroldegian. Txartelak 8 eurotan salgai daude. Auzo-alkateengana jo edo bestela Vital Kutxan, Euskadiko Kutxan edo udaletxean eman dezakete izena interesatuek. Bazkalostean, Aramaioko nagusienei omenaldia egingo zaie eta sarien zozketa izango da.

Ikastaroko bigarren saioa egin zuten zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL

LEINTZ GATZAGA > TURISMOA

Kalitatearen alde lanean jarraituko dute Gaztainuzketako mendi etxeen arduradunek

Pozik azaldu dira Mankomunitatearen diplomarekin eta turismoak gurean laguntza handiagoak behar dituela diote

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Konpromisoa kalitate turistikoarekin diploma jaso zuten Gaztainuzketa mendi etxeen arduradunek, beste batzuekin batera, hilaren 13an, Mankomunitatearen eskutik. Kalitate turistikoarekin hartutako konpromisoa saritzea du helburu diploma horrek, eta mendi etxeen ardura duen Amaia Olabe pozik dago errekonozimenduarekin: "Lanean jardun dugu horretarako eta lanean jarraituko dugu. Izan ere, beti dago hobetzeko".

Egun batzuetan oporretan izan dira, baina asteon berriro zabalduko dituzte Gaztainuzketako jatetxe eta etxeen ateak.

KATALUNIARREN BISITA

Orain dela bi urte hartu zuen Udalarenak diren mendi etxeen ardura eta beti gura izan arren egoera hobea izatea, pozik dago bi urteotako lanarekin: "Ez zaigu tokatu sasoirik onena, baina aurrera egiten gabiltza. Etxeetan jendea dabil, langileak batzuetan eta bisitariak hurrengoan, batez ere kataluniarrak", dio Olabek.

Onartu du turismoak ez duela bizi momenturik onena eta hori bultzatzeko laguntzak behar direla, "batez ere barrualdean".

Kirola

> FUTBOLA
Hernaniko bisitaren aurrean, 0-1 galdu zuen Bergarak **> 24**

> SASKIBALOIA
Sustrai Aloñak 73-70 irabazi zuen etxean jokatutako partiduan **> 25**

> KOLDO LAMIKIZ
Beterano mailako Koldo Lamikiz ziklistari elkarrizketa **> 27**

Bolo-jokoan markinarra izan zen garaile

18 TALDE Elgeta, Eibar, Azpeitia, Plazentzia, Markina, Elgoibar eta Debako taldeak izan ziren

GIRO APARTA Adin guztietako jende ugari bildu zuen bola-jokoak Elgetan, zapatuko txapelketan

AMAIA TXINTXURRETA > ELGETA

Elgetako bolatokian jokatu zen Euskadiko hiru-txirlo bolo txapelketako bigarren jardunaldia, zapatuan. Elgetako taldeaz gain, Eibarko Asola Berri, Azpeitiko Floreaga, Markinako Iruzubieta, Plazentziako San Andres, Elgoibarko San Migel eta Debako Lastur taldeetako kideak ere izan ziren lehian. Eta talde bakoitza beste 2-3 taldez osatuta zegoen. Guztira, 18 talde lehian aritu ziren Elgetako bolatokian.

Pertsona bakoitzak hiru txanda zituen jokatzeko eta irabazlea Markinako Iruzubieta taldeko Antolin Arizmendiarreta izan zen. Arizmendiarretak zazpi txirlo bota zituen guztira, eta horregatik lortu zuen garaipena. Hala ere, Elgoibarko San Migel taldeko Jabier Osoro ez zen urruti ibili, eta bigarren postuan gelditu zen sei txirlo bota ostean. Hirugarren berriz, Asola Berriko Beñat Gomez eibartarra gelditu zen lau txirlo botata.

Hiru irabazleek txapelketako zerrendaren gain-gainean egoteko puntu garrantzitsuak jaso dituzte, baina horrez gain, sari propioak ere izan dituzte: Arizmendiarretak 65 euro, Osorok 50 euro eta Gomezek 35 euro.

BIGARREN JARDUNALDIA

Euskadiko hiru-txirlo txapelketak lau jardunaldi izango ditu, eta horietako bigarrena izan zen Elgetakoa. Joan den asteburuan, estreinatu zuten txapelketa, Goittan (Mallabia), eta hurrengoak azaroan jokatuko dituzte; hirugarren jardunaldia Markinan eta finala azaroaren 13an izango da Azkoitian.

Beraz, momentuz eta Elgetan jokatutako txapelketa Iruzubieta taldeko Arizmendiarretak irabazi arren, gauzak alda daitezke falta diren beste bi jardunaldietan.

73 LEHIAKIDE

Antolatzaile lanetan diharduen Sebastian Arantzabalek esan zuen, Elgetan jokatutako txapelketako bigarren jardunaldi horretan, aipatutako zazpi herrietako 73 lehiakide bildu zirela. Mallabian jokatutako lehenengo jardunaldian, berriz, 68 bolari izan ziren. Bolo-jokoan jokatzen gazte zein helduak ikusi ziren Elgetako bolatokian, baina gehienak gizonak izan ziren.

Hala ere, emakume batzuk ere animatu ziren bola hartu eta txirloak botatzera. Tartean, Elgetako Geaxi Ezpeleta emakumeak hartu zuen parte bola-jokoan eta horrelako txapelketa baten parte hartzen zuen lehenengo aldia izan bazen ere, gustura aritu zen jokoan.

GIRO EZINHOBEA

Euskadiko hiru-txirlo bolo txapelketa jokatzen den hogeitabatgarren aldia da aurtengoa eta Elgetako bolatokia jendez lepo bete zen. Alde batetik, jokalariak zeuden. Eta bestetik, ikustera edo kuxkuxeatzera joandakoak.

Elgetako bolatokian, Euskadiko hiru-txirlo bolo txapelketako bigarren jardunaldian. JOSETXO ARANTZABAL

Luzio Sarasketa > Bola-joko zalea

"Txikitatik ibili zan naiz bola-jokoan eta nire afizioa da"

A.T. > ELGETA

Luzio Sarasketa elgetarrak ia 75 urte daramatza bolatokietan jolasten eta dagoeneko 50 bolatoki baino gehiago zapaldu ditu. Sari batzuk ere irabazi ditu Sarasketak.

Non hasi zinen bola-jokoan jolasten?

Ni Elgetako Arantzeta auzokoa naiz eta txikia nintzela bi bolatoki genuezkan auzoan. Zortzi urterekin hasi nintzen bola-jokoan eta Txorroburua bolatokian ikasi nuen bolotan.

Beraz, hau ez da txapelketa baten parte hartzen duzun lehenengo aldia izango?

Ez horixe. Horrelako askotan ibilitakoa naiz, sari batzuk ere irabazi ditut gainera. Elgetan hiru urtetan bi aldiz lehenengo saria jaso nuen eta beste behin bigarrena.

Eta oraindik ere pozik zabiltzala dirudi.

Bai, afiziotzat hartzen dut bola-jokoa eta betidanik gustatu izan zait. Osasunak laguntzen didan bitartean behintzat ez dut hutsik egingo Elgetan izaten diren horrelako txapelketetan.

J.A.

ATLETISMOA > TAFYD KROSA

Sergio Garcia eta Aitziber Urkiola azkarrenak Arrasaten

74 korrikalarik hartu zuten parte barikuan II. Gaueko Tafyd krosean

Giroa eta ikusleen animuak azpimarratu zituzten korrikalariek

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

"Gustatu zait lasterketa. Giro oso polita egon da eta jendeak asko animatu du. Erdiguneko kaleetan korrika egiteak badu xarma; ikusten ari ziren umetxoek ere egin dute korrika gurekin batera". Halaxe deskribatu zuen Sergio Garcia Oñatiko korrikalari gazteak egubakoitz iluntzean Arrasaten jokatu zen II. Gaueko Tafyd krosa, podiumera saria jasotzera igo aurretik. Eta ez zen bakarra izan, galdetutako korrikalarietako gehienek gauza bera azpimarratu zuten: giroa eta herritarrek emandako animuak.

Sergio Garciak 18 minutu eta 35 segundo behar izan zituen lasterketaren 6 kilometroak egiteko. Emakumezkoetan azkarrena, berriz, Aitziber Urkiola eibartarra izan zen, 23:43ko denborarekin.

Era berean, Luis Dehesa (20:22) eta Marije Velasco (26:11) izan ziren azkarrenak beteranoetan.

ABIADURA BIZIA

Lasterketa Ferixalekuan hasi zen, 20:00etan eta hasiera-hasieratik erritmoa gogorra izan zen. Sei kilometro ez dira asko eta horrek markatu zuen neurri baten lasterketaren abiadura. Sergio Garciak berak aitortu zuen uste zuela lehenengo itzulia "apur bat motelagoa" izango zela. Baina, esan bezala, erritmoa bizia izan zen hasierako metroetatik.

Ibilbidea erdiguneko kaleetan barrena izan zen eta bi kilometroko hiru itzulik osatu zuten lasterketa. Hain justu, ibilbidea erdiguneko kaleetan barrena izateak badu bere berezitasuna; ibilbidea bihurgunetsu bilakatzen dela, eta hainbat korrikalarik azpimarratu zuten hori amaieran. Aitziber Urkiolak, esaterako, zera esan zuen: "Bihurgune askoko lasterketa izan da, apur bat arraroa, baina polita".

ANTOLATZAILEAK POZIK

Antolatzaileak –Arizmendi ikastola– oso pozik daude lasterketak izandako erantzunarekin: "Korrikalari kopuruak gora egin du. Aurten 74 korrikalarik hartu dute parte, iaz baino gehiago, eta pozik gaude lasterketa indartzen doalako", esan zuen lasterketa ostean David Berezibarrek.

Aurtengo lasterketa bukatu berri, dagoeneko badihardute datorren urtekoan pentsatzen, eta Berezibarrek azpimarratu duenez, "100 laguneko hesia apurtzea" izango da erronka nagusia.

HURRENGOA, SORALUZE-BERGARA

Debagoienean egingo duten hurrengo lasterketa Soraluze-Bergara izango da (10 kilometro), azaroaren 6an. Antxintxika triatloi taldeko lagunek aldatu egingo dute irteera puntua, eta baita ibilbideko zati bat ere, zailtasun fisikoa dutenek ere lasterketa egin ahal izan dezaten.

DATUA

74

KORRIKALARI

Egubakoitzean 74 korrikalari animatu ziren II. Gaueko Tafyd krosa egitera. Arrasatekoak ez ezik, Bergarako, Aramaioko, Aretxabaletako... korrikalariek hartu zuten parte.

Ferixalekuan izan zen irteera, 20:00etan. 74 korrikalarik hartu zuten parte eta 72k bukatu zuten

Aretxabaletako alkate Inazio Garrok ere hartu zuten parte. JOSETXO ARANTZABAL

PROTAGONISTAK

Sergio Garcia
Oñati

"Ondo ibili naiz, azkenerako indar apur bat egin beharra izan dut, baina osterantzean, ondo. Lasterketa hasieratik izan da bizia; uste nuen lehenengo buelta apur bat lasaiagoa izango zela, baina ez; hasieratik izan da azkarra erritmoa eta horri eustea izan da gakoa. Arrasateko lagunak ditut, eta eurak esan zidaten lasterketa hau zegoela eta entrenamendu gisa erabili dugu. Bestalde, jende asko zegoen kalean animatzen eta giroa polita izan da".

Aitziber Urkiola
Eibar

"Lasterketa apur bat arraroa izan da, bihurgune asko zeudelako ibilbidean, baina ondo joan da. Gustura egin dut. Giroa oso polita iruditu zait. Izan ere, erdiguneko kaleetan barrena izan da eta jende asko zegoen ikusten eta animuak ematen. Lehenengoz etorri naiz. Arrasateko lagunak ditut eta euren bitartez izan dut lasterketaren berri; gaueko krosa zela esan zidaten gainera, eta berezia iruditu zitzaidan. Orain Behobia-Donostia dut buruan".

Aitor Arana
Aramaio

"Oso gustura ibili naiz; eguraldia ona izan da eta ikusleek ere asko animatu dute. Iaz ere hartu nuen parte eta hartan ere gustura ibili nintzenez, bada, aurten errepikatzea pentsatu dut. Neurera atera naiz eta gustura bukatu dut lasterketa; erritmoa egokia izan dela iruditu zait. Gainera, sei kilometro dira, ez da luzea, eta horri gehitzen badiogu kalean jendeak asko animatzen duela, ba, parte hartzera animatzea erraza da".

Alberto Ozaeta
Arrasate

"Ondo, baina azkenerako nekatuta, hiru buelta luze egiten dira eta. Aurrekoak azkar hasten badira norberak ere igo egiten du erritmoa eta gero... Iaz ere hartu nuen parte eta aurten jende gehiago dagoela uste dut; lasterketa izena egiten doanaren seinale. Oso giro polita egoten da, gainera. Lasterketa polita izaten da, era berean, Zarautzen egiten den mistoa, bikoteka korritzen dena. Animatu nahiko nuke jendea parte hartzera; oso polita da".

David Berezibar
Arrasate

"Antolatzaileok balorazio positiboa egiten dugu, bai parte-hartze aldetik zein antolakuntza aldetik. Azpimarratuko nuke korrikalari kopurua goraka doala eta baita antolakuntzan ere boluntario gehiago egon dela. Eta horrez gain, azpimarratuko nuke kaleko giroa ere oso ona izan dela. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiogu antolakuntzatik herriko dendariei emandako laguntzagatik eta bestela ere lagundu diguten guztiei".

n.
JOSETXO ARANTZABAL

Sergio Gartzia helmugara iritsi zen unea.
JOSETXO ARANTZABAL

Herritarrak Aitziber Urkiola animatzen.
JOSETXO ARANTZABAL

Lasterketaren sailkapena

MUTILAK

Sergio Gartzia	18:35
David Gartzia	18:38
Joseba Plaza	18:40
Ander Agirre	18:58
Richar de Goñi	19:17
Unai Hernandez	19:19
Kepa Varela	19:22
Martin Berrizbeitia	19:54
Garikoitz Uzkudun	20:02
Iker Sarabia	20:09
Endika Donnay	20:19
Luis Dehesa	20:22
Gaizka Romero	20:27
Gurutz Larrea	20:30
Josu Bareño	20:42
Juan Carlos Gomez	20:48
Beñat Etxabe	20:52
Aritz Saidi	20:58
Mikel Balanzategi	21:03
Jon Osinaga	21:06

NESKAK

Aitziber Urkiola	23:34
Ane Ciaran	25:32
Leire Altube	25:43
Marije Velasco	26:11
Aintzane Ezeolaza	27:40
Yolanda Pz. de Arenaza	28:14
Lorea Jimenez	30:15

Bihurgune askodun ibilbidea izan zuen lasterketak.
JOSETXO ARANTZABAL

Senior eta beterano mailako azkarrenak saria jasotzen.
JOSETXO ARANTZABAL

Txikiteoan zebiltzan herritarrek gogoz animatu zituzten korrikalariak.
JOSETXO ARANTZABAL

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO UMEEK?

ZER DIO GOSE TALDEAK?

FUTBOLA > OHOREZKO ERREGIONALA

Ezustean eta amaierarako hiru minutu falta zirenean etorri zen Hernaniren gola

Bergararen defentsako akatsa oso ondo aprobetxatu zuten Hernanikoek

BERGARA
0-1
HERNANI

Bergara > Asier Lopez, Aitor Elorriaga, Jon Garitano, Mikel Oregi, Iker Arazkonaga, Unai Agirre, Beñat Katalan, Julen Iñurrieta, Martin Ibañez, Markel Iltzarbe, Jokin Baltzategi eta Imanol Cabanillas.

Hernani > Jon Gartzia, Aginagalde, Mingo, Peru, Lujanbio, Adrian, Urio, Gurrutxaga, Omar, Olasagasti eta Bereziartua.

Epailea > Estebañez. Ez zuen adierazi penaltia izango litzateken Hernanikoen esku bat. Bergarako zaleek gogor kritikatu zuten.

ARRITXU BARRUSO > BERGARA

Etxetik kanpora arazoak izaten ari direla-eta, Bergararendako garrantzitsua zen zapatuan etxeko berotasunean hiru puntuak lortzea. Dena dela, bazekiten ez zela lan erraza izango; Hernani liderra zuten aurrez aurre.

PIZTU ZIRENERAKO BERANDU

Partidu gogorra izan zen zapatukoa, zelaiaren erdian borroka askorekin: Hernani atzean tinko eta Bergara aurrera egin ezinik. Partiduaren lehenengo zatia horrelaxe joan zen, joko eta aukera gehiegi barik. Hutseko berdinketarekin joan ziren aldageletara.

Bi taldeak ere biziago itzuli ziren zelaira bigarren zatian eta urduritasuna sumatzen zen harmailetan. Hamargarren minutuan Hernanik gola egiteko aukera garbia izan zuen, baina Bergarako atezainak gelditu ona egin zuen. Arriskua ikusita baina, bergararrek erreakzionatu egin zuten eta denborak aurrera egin ahala bergararrak gero eta gertuago zeuden gola egiteko. Aukera bi ere izan zituzten horretarako, baina nahi eta ezin izan zen.

Gola egiteko nahiak Bergarako defentsan akatsa ekarri zuen eta Hernanik ondo aprobetxatu.

Partidu oso parekatua izan zen. Argazkian Bergara eta Hernani baloia eskuratzeko lehian. JOSETXO ARANTZABAL

Inork espero ez zuen arren, partidua amaitzeko hiru minuturen faltan Hernanik garaipenaren gola egin zuen. Epaileak bost minutu gehiago eman zituen arren, Bergara behera etorri zen eta ezin izan zion markagailuari buelta eman.

Ordiziara joango dira bergararrak datorren astean. Etxean galdu ostean, ezinbestekoa zaie kanpoan puntuak egiten hastea.

J.A.

Urduritasun puntu batekin, baina 1-0 irabazi zuen atzo Aretxabaletak

Partidu bizia jokatu zuen Aretxabaletak Ibarran Idiazabalen kontra. Aretxabaletakoek oso ondo hasi zuten partidua, intentsitatearekin. Joko onaren emaitza 20. minutuan iritsi zen Oinatzen golarekin. Horrela amaitu zen lehenengo zatia. Bigarren zatian urduriegi ibili ziren Rafa Uribarrenen mutilak, markagailua mantendu nahian eta beharbada gauzak azkarregi egin nahian. Idiazabalgoek, baina, ez zuten lortu gola egiterik.

> OHOREZKO ERREGIONALA

Aloñak Berioren kontra galdu, eta Mondrak irabazi Hondarribiari

Aloña Mendik Berio donostiarraren zelaian galdu egin zuen zapatu arratsaldeko partiduan. 2 eta 0 markagailuarekin amaitu zen partidua.

Mondrakoek zorte handiagoa izan zuten zapatu arratsaldean. 1 eta 4 irabazi zioten Hondarribiari.

> EMAKUMEZKOEN LIGA

Mondrak 5-4 irabazi zuen eta Arizmendik, berriz, 2-0 galdu

Mondra taldeko neskek lider izaten jarraituko dute beste astebetez, zapatu arratsaldean Azpeitiako Lagun Onaki 5 eta 4 irabazi ostean. Arizmendiko neskek, ordea, domekan, ezin izan zituzten debarrak menderatu, eta 2 eta 0 galdu zuten Amaika Baten kontra.

ZER DIO PELLO URIZARREK?

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO GARRAIOLARIEK?

SASKIBALOIA > MU ETA SUSTRAI ALOÑA

Aloñak lider jarraitzen du denboraldi hasiera bikainaz

Oñatiarrek lau partidu jarraian irabazi dituzte; MUk, berriz, lan ona eginda, etxean galdu egin du

MAIDER ARREGI > ARRASATE

Markagailuan 12 eta 2, gogor hasi zen Sustrai Aloña Mendi. Baina, UPV gasteiztarrak partiduari buelta eman eta 1go zatia 38na berdinduta amaitu zuten. Hirugarren laurdenean, ordea, oñatiarrek 10 puntuko aldea atera zioten aurkariari, partidua apurtuz. UPVk, ordea, markagailuan aurrea hartzea lortu zuen. Hala, partidua bukatzeko minutu eta 20 segundoren faltan, 4 puntugatik galtzen zebilen Sustrai Aloña Mendi. Kategoriari neurria hartu diola erakutsi nahi izan zuen, eta atzean lana ondo eginda, 70-70 berdintzea lortu zuen. Gasteiztarren azken erasoan baloia lapurtu, eta azken segundoan Ales jokalariak saskiratutako hirukoak garaipena eman zion Aloña Mendiri (73-70).

MU, INDARTSU ETA GOGOTSU

Partidu polita eta intentsua jokatu zuen MUk, baina Josu Larreategiren mutilek ezin izan zuten garaipena eskuratu (75-88). Hamabosna berdinduta bukatu zuten 1go laurdena, baina, Askartzakoek markagailuan 18 puntuko aldea atera zieten. "Defentsan indartsuak eta esperientziadunak dira aurkariak. Gureek indarra dute, baina gaztetasuna igarri egiten zaie", dio Larreategik. 2. zatian, ordea, dena ematera irten ziren kantxara eta MUk hiruko guztiak saskiratu zituen; bikain ibili ziren, batez ere kanpoko jokoan.

MUk etxean, Iturripen, jokatu zuen zapatuko partidua. JOSETXO ARANTZABAL

JOSETXO ARANTZABAL

Arrakastaz amaitu da MTB zirkuitua

Arrasateko martxarekin Debagoieneko MTB zirkuituari eman diote amaiera borobila. Antolatzaileek balorazio positiboa egin dute. Jende asko izan da Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Bergara, Oñati, eta Arrasateko martxetan. Zapatukoan, Arrasaten, 250 parte-hartzaile pasatxo izan ziren, tartean, Bizkaitik, Arabatik eta Burgostik etorritakoak.

> ESKUBALOIA

Soralucek galdu egin du; Aloñako neskek, berriz, berdindu

Soraluce BKE taldeak Corazonistas liderraren aurka galdu egin zuen zapatuan Gasteizen (34-17). Hala, jaitsiera postuan jarraitzen dute.

Aloña Mendiko senior mailako neskek, berriz, hamaseina berdindu zuten Usurbilen aurka zapatuan.

> ERRUGBIA

Arrasatearrak partidua galduta etorri dira Iruñetik etxera

Kanpanzar ART taldeak, zazpi puntuko aldearekin, partidua galdu egin zuen. Lehen zatian, nafarrak erasoan gogor aritu ziren eta aurretik jarri ziren markagailuan. Hala ere, arrasatearrek, partiduari buelta ematea lortu, eta markagailuan aurretik ere ibili ziren.

Futbola

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Sailkapena

	Punt.	Jokat.
1. **Hernani**	**18**	7
2. **Real Union**	**14**	7
3. **Mondra**	**13**	7
4. **Oiartzun**	**13**	7
5. **Anaitasuna**	**13**	7
6. **Pasajes**	**13**	7
7. **Aurrera Ondarroa**	**13**	7
8. **Aretxabaleta**	**12**	7
9. **Trintxerpe**	**9**	**7**
10. **Idiazabal**	**9**	7
11. **Tolosa**	**8**	7
12. **Berio**	**8**	7
13. **Ordizia**	**8**	7
14. **Hondarribia**	**7**	7
15. **Bergara**	**6**	7
16. **Aloña Mendi**	**6**	7
17. **Zumaiako**	**4**	7
18. **Roteta**	**2**	7

Emaitzak

Berio-**Aloña Mendi**	2-0
Hondarribia-**Mondra**	1-4
Trintxerpe-Real Union	1-1
Roteta-Anaitasuna	1-1
Zumaiako-Aurrera	0-2
Oiartzun-Ordizia	5-1
Bergara-Hernani	0-1
Tolosa-Pasaia	0-1
Aretxabaleta-Idiazabal	1-0

Hurrengoak

Aloña Mendi-Hondarribia
Mondra-Trintxerpe
Ordizia-**Bergara**
Pasaia-**Aretxabaleta**

BESTE KATEGORIAK

GAZTEEN LIGA NAZIONALA

Retuerto-Aretxabaleta	3-2

ERREGIONAL PREFERENTEA

Lagunak-Aretxabaleta	3-0
Elgoibar-Antzuola	2-3
Mondra-Zestoa	0-1

LEHEN ERREGIONALA

Soraluze "B"-Bergara "B"	1-8
Aretxabaleta-Soraluze	0-1

GAZTEEN OHOREZKO MAILA

Burumendi-Mondra	1-2
Aloña Mendi-Elgoibar	2-0

GAZTEEN LEHEN MAILA

Eibartarrak "B"-Bergara "B"	2-4
Arizmendi-Eibartarrak	1-2
Arizmendi UDA "B"-Aretxabaleta "B"	2-9

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Reala-Bergara	4-1
Ondarroako Aur.-Aretxab.Ar.	1-1

KADETEEN LEHENENGO MAILA

Arrasate-Aloña Mendi "B"	4-1
Aloña Mendi-Bergara "B"	7-0
Aretxabaleta "B"	Atsedena

EMAKUMEZKOEN LIGA

Mondra-Lagun Onak	5-4
Amaikak Bat-Arizmendi	2-0

INFANTILAK OHOREZKO MAILA

Anaitasuna-Aretxabaleta Arizm.	0-2
Arrasate-Eibar	1-3
Aloña Mendi-Bergara	0-2

Eskubaloia

MAILAZ MAILA

EUSKADIKO SENIORRAK, GIZON.

Corazonistas-Soraluze BKE	34-17

SENIOR PREFERENTEA, EMAKUMEAK

Atez Ate Usurbil-Aloña Mendi	16-16

LEHEN TERRITORIALA

Decotena Pulpo-Arrasate	23-23

BIGARREN TERRITORIALA

Izarraitz Aloña Mendi-Groseko	17

GAZTEEN GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Bergara-Urola	29-30
Egia-Aloña Mendi	28-30

GIPUZKOAKO GAZTEAK EMAKUMEAK

Ereintza-Bergara Soraluze	17-10
Leizaran-Aloña Mendi	27-24

KADETEEN GIPUZKOAKO TXAP.

Urnietako-Chapime Arrasate	26-19
Soraluze Bergara-Urola	31-16

KADETEEN TXAPELKETA, EMAK.

Egia-Aloña Mendi "A"	8-27
Aloña Mendi "B"-Zalla Taberna	16-23

INFANTILAK, GIZONEZKOAK

Amenabar "B"-LEK Arrasate	28-11
Berezao Aloña Mendi "A"-Arrate	26-30
Amenabar "D"-Pakita Altz. Aloña	18-18

INFANTILAK, EMAKUMEZKOAK

Aloña Mendi "C"-Alzola Ura Pulpo	21-12
Aloña Mendi "B"-Trapaia Taberna	15-18
Fed. Elgoibar-Aloña Mendi "A"	12-17

Saskibaloia

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA

Sustrai Aloña Mendi-UPV Álava	73-70
MU-Askartza	74-88

SENIOR GIZONEZKOAK

MU-Krafft Atlético San Sebastián	75-56

SENIORRAK, BIGARREN MAILA

Aluminios F.-Sustrai Aloña	47-48

GAZTEAK MUTILAK, PARTAIDETZA

MCM-Soraluze BKE	71-66
Aloña Mendi	Atsedena

Areto futbola

MAILAZ MAILA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza-Kurutziaga	0-3

BIGARREN MAILA

Aretxabaleta-Power Rangers	7-3

HIRUGARREN MAILA

Aloña Mendi-Hirukide	5-4

Harmailatik

Debagoieneko kirola GOITBn

Astelehenero 20:45ean eta 22:30ean

goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!

2.KONTZERTUA

azaroak
5
EGUBAKOITZA
22:30
ELGETAKO KAFE ANTZOKIA

SARRERAK ETA ABONUAK //
SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

SARRERAREN SALNEURRIA 5 EURO //
GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
ABONUA 22 EURO //
GAZTEKUTXAREKIN 12 EURO

EL TRIO CALAVERA
OÑATI
ROCK PRIVADO
OÑATI-DONOSTIA
FRONT MALABAR
ARRASATE
YMOTEK
ABADIÑO

DANBAKA
IV. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENADEBAGOIENADURANGALDEA

www.danbaka.com

BABESLE NAGUSIA
kutxa gazte

LAGUNTZAILEA
PREST
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Elgetako Udala
gaztelupeko HOTSAK www.hotsak.com
SHOT!
PIL-PILEAN
B
eta kito!
GAURKO grupo SEIN taldea
GANESHA TATTOO ARRASATE
laino SKATEPARK
anboto komunikabideak
drogetenitturri

ANTOLATZAILEAK
Goiena 10 URTE
KAFE ANTZOKIA espaloia ELGETA

Koldo Lamikiz > Beterano mailako ziklista

"Disfrutatu egiten dut entrenatzen, ez zait batere kostatzen"

XABIER URTZELAI > BERGARA

Ibarreko zikloturistek ondo ezagutzen dute Koldo Lamikiz (Artega, 1948); batek baino gehiagok izerdi ederrak bota ditu bizikletan Bergarakoaren gurpila jarraitu nahian. Hogei urte lasterketetatik kanpo egon ostean, 62 urterekin harra sartu zaio berriro: "Nire adinarekin eta dominak erakusten ibiltzea ere!", dio barrez: Beteranoetan Euskadiko txapeldun izan da, eta Espainiakoan hirugarren. Aurtengo lorpenak, baina, ez dira hor amaitzen.

Astebetean Mallorcako itzulia irabazi eta Europako txapelketan hirugarren geratu zara. Hori da aste biribila.

Bai, baina Mallorcako itzuliko azken etapan helmugara iristeko bi kilometroren bueltan lurrera joan nintzen, eta dominekin batera saihetsetan eta sorbaldan kolpe ederra hartuta itzuli naiz. Aste barruan hasi naiz bizikletan poliki-poliki, banabil errekuperatzen.

Egin dezagun atzera, 62 urteren ostean txirrindularitzaz izango duzu zer kontatu.

Pentsa, *batallitak* kontatzen hasiz gero egun osoa beharko genuke [Barre].

Gaztetatik hasi zinen bizikletan.

Gernikesa taldean korritzen nuen nik, hamasei urterekin, baina amak gogor egiten zigun ikasi egin behar genuela esanez eta Arrasatera etorri nintzen. Bizikleta alde batera utzi nuen orduan, eta soldaduska egiten nengoela hasi nintzen bizikletan berriro ere ibiltzen, 27 urterekin-edo.

Eta 32 urterekin amateurrekin hasi zinen lehian.

Bai, hiru bat urte egin nituen, eta etapa batzuetan aurrealdean ibili banintzen ere orduan oso jende ona zegoen. Jaisten eta lautadan ondo defendatzen nintzen, baina aldapa gora beste maila bat zegoen: Xabier Izuzkitza, Izagirre, Ruben Gorospe, Fede Etxabe, Arsenio Gonzalez...

Ondoren beterano mailan hasi zinen korritzen.

Bai 42 urte bete nituen arte beteranotan korritu nuen. Orduan lortu nuen Espainiako txapelketa lautan irabaztea, eta Gorlan ere zazpi urtez irabazi nuen.

Lasterketak utzi zenituen orduan, baina berriro ere hasi zara aurten.

Pentsa, 20 urte egon naiz lasterketetan esku hartu barik, baina buruan sartu zitzaidan, eta....

Entzun dut zikloturista irteera batean Lamikiz badago, egun horretan ez dagoela bakerik.

[Barre] Bai, atsegin dut estutzea, bai. Alde horretatik oso lehiakorra naiz. Nire erritmoan joatea atsegin dut, eta ahal badut aurrera egin, baina ez inor atzean uzteko asmo txarraz. Ondoren hamarretakoa egiteko guztiei itxaron, eta etxera batera itzuli. Hori da politena.

Baina ez didazu esango 62 urterekin 30 urteko gazteak atzean uztea gozamena ez denik.

[Barre] Bada, bai. Baina gehiago da nire adinarekin ze mailatara iritsi naizen ikustea. Hori bai, asko zainduta eta gogor entrenatuta. Nik, baina, halaxe disfrutatzen dut, zorrotz entrenatzea ez zait batere kostatzen.

Espero zenuen Mallorcan horren ondo ibiltzea?

Ondo entrenatuta joan nintzen. Europako txapelketan 45 kilometroko etapa egin genuen, eta oso azkarra izan zen. Javier Perezek eta biok adostu genuen holandarrak [Fred de kinkelder eta Joob Ribbers] gertutik zaintzea. Egin zituzten ihesaldi ahalegin guztietan atzean ginen, baina azken erasoetako batean Perez atzean geratu zen eta ni geratu nintzen eurekin bakarrik. Eta hori aprobetxatu zuten elkarrekin lan egin eta ni ere atzean uzteko.

Eta jarraian korritu zenuten Mallorcako itzulia.

Hiru eguneko etapa izan zen. Hirugarren etapa hasi aurretik lider nengoen, eta paper batean gertutik jarraitu beharreko dortsal guztiak apuntatu nituen [Barre], eta manillarrean jarri nuen paper hori. Aurrean ibiltzea zen asmoa, etapa zaintzen, eta lortu nuen, helmugara iristeko bi kilometro falta ziren arte.

Lurrera joan nintzen orduan, baina zorionez epaileek lehenengoaren denbora jarri ziguten lurrera joan gineoi, eta itzulia irabazi nuen, justu-justu.

Koldo Lamikiz, Europako txapelketako dominarekin. XABIER URTZELAI

"Gaztetan Gernikesa taldean korritzen nuen, baina ikasketengatik utzi nuen bizikleta"

"Amateur mailan oso ziklista onekin korritu nuen, beste maila batekoak ziren"

"Urteekin galdu egiten da aldapa gora joateko gaitasuna, bihotzak ez du berdin erantzuten"

"Badakit maila honi ezingo diodala luzaroan eutsi, baina lasaiago ibilita ere goza daiteke"

Bizikleta gainean, baina, igarriko da urteak aurrera doazela.

Duda barik. Aldapa gora motelago joaten naiz, bihotza ezin dugu lehen moduan estutu. Gehiago kostatzen da errekuperatzea, baina lautadan eta aldapa behera ondo moldatzen naiz oraindik. Badakit maila honi ezingo diodala luzaroan eutsi, baina honezkero ez gara burua galtzen hasiko. Lasaiago ibilita ere posible da bizikletaz gozatzea.

HEZIKETA > JARRERAK

Jarrera egokiak ikasteko ezinbestekoa da gurasoen eredua

Gurasoei gustatu egiten zaigu ondo hezitako umeak ditugula entzutea, baina ez da erraza; pazientzia eta eredu izatea beharrezkoak dira

Umea jaten. GMALRAS

LARRAITZ ZEBERIO > ARRASATE

Seme-alabei jarrera egokiak erakustea ez da lan erraza. Txiki-txikitatik hasi beharra dago eta irmoa izan beharra dago, gainera. Salvador Cardus soziologoaren esanetan, kontua ez da arau zorrotzak ezartzea, baizik eta jarrera eredu egokiak erakustea. Zeregin horretan gurasoen erreminta nagusia uneoro eredu izatea da.

Jarrera egokiak ikusi behar ditu umeak. Ez du ezertarako balio etxetik kanpo jarrera horiek sustatzea etxeko intimitatean errespetatzen ez baditugu. Gainera, umearen heldutasunaren arabera exijitu behar ditugu. Azalpenek ere egokiak behar dute. Ez diegu soilik egin behar ez dutena azaldu behar, egin behar dutena zer den ere azalduko diegu. Garrantzitsua da, halaber, modu egokian jokatzeak dituen ondorio onak azpimarratzea. Hau da, errespetuz jokatzen badu, harekin ere errespetuz jokatuko dutela adieraztea.

GUTXIENEKOAK

Mesedez, Eskerrik asko eta *Barkatu* esatea, jendea agurtzea, elkarrizketak errespetatzea, ordena eta higienea kontuan hartzea eta mahaian jarrerak zaintzea dira seme-alabei eskatu beharreko gutxienekoak. Baina galdera da; gurasook ere zaintzen ditugu horiek guztiak?

HEZKUNTZA > EREDU ESPERIMENTALA

'El león dormido' hezkuntza ereduko eskola Nafarroan

L.Z. > ARRASATE

Gazolatz herriko (Nafarroa) eskolan ez dago adinaren araberako sailkapenik, ez dago klaserik eta eskola eremu ezberdinetan banatuta dago. Guztiak dituzte uneoro eskura ikasleak; txoko bakoitzean nahi dutena egin dezakete nahi duten unean. *El león dormido* izeneko hezkuntza eredua dute.

Umea jolasean. SEO2

Hezkuntza eredu horrek ez du zerikusirik eskola konbentzionalarekin. Eskola horretan haurrek euren kasa ikasten dute, inork irakatsi gabe. Prozesu autodidakta baten oinarritzen da eta haurrek bizi dituzten esperientzien arabera ikasten dute. Arduradunen esanetan, euren erritmoa eta autonomia errespetatzen dira.

HELDUEN ZEREGINA

Eskolan haurrek beti dute pertsona heldu bat ondoan. Ez zaie *irakasle* hitza gustatzen, euren zeregina haurrei inguru egokia eskaintzea baita. Proposamen irekiak egiten dizkiete, haurrek onartuko dituztenak edo ez. Onartuz gero, horrek esan nahi du haurrak sentitzen duen behar jakin bat asetzeko unea iritsi dela. Orduan, bereziki prestatutako material pedagogikoa eskaintzen diete. "Haur batek egun osoan matematika gelan egon nahi badu, egon egingo da", entzun diegu arduradunei Euskadi Irratiko *Mezularia* saioan. "Errealitateak berak jarriko du irakurketarako interesik ez duen haurra behar horren aurrean".

OSASUNA > ATSEDENA

Haurtzaroan lo gutxi egiteak ondorioak ditu

L.Z. > ARRASATE

Bi ikerketa berriren emaitzak jaso dituzte *zientzia.net* atarian. Gauetan hamar ordu baino gutxiago lo egiten duten 5 urtetik beherako haurrek joera handiagoa izan dezakete, urte batzuetara, gehiegizko pisua edo loditasuna izateko. Kaliforniako eta Washingtongo hainbat unibertsitatetako bi ikerlariren baieztapena da hori.

Ikerketak 1997 eta 2002. urteetan egindako inkesta bat du oinarri; 1.930 haurrek parte hartu zuten, eta bi urteotan bildutako datuak alderatu ziren gero. Hala, haurren lorik ezak loditasuna eragin dezakeela iradokitzen duen lehenengo ikerlana da honakoa. Oraindik, ordea, ez dute oso argi zein den azalpena, eta ikertzen jarraituko dute.

SIESTAREN GARRANTZIAZ

Ikerlariek diote siestak ezin duela gaueko loa ordezkatu. Garrantzitsua da, baina ez du gaueko loa guztiz konpentsatzen. Bi loaldiek funtzio ezberdinak betetzen dituztela azaldu dute: "Siestak estresa kentzen edo ikasteko adi egoten lagun dezake, adibidez. Gaueko loaren barruan, berriz, funtzio biologikoak, psikologikoak eta lehengoratzeari dagozkionak sartzen dira".

Ikerlariek azaldu dute ikertzen jarraitu behar dutela: "Aditu batzuentzat, zenbat eta luzaroagoan egon esna, orduan eta gehiago jango du haur batek. Beste teoria batek dio atseden gutxi hartzen duten umeak nekatuegi daudela kirol edo jarduera fisikoak gogotsu egin ahal izateko".

Umea lo. KENNETH F. ANDRADE

> PUBLIZITATEA

Eskolako mahaietan eta aulkietan iragarkiak ipintzeko bidea zabaldu dute Italia hegoaldean

Italian ere aurrekontu murrizketa handiak egon direla-eta zenbait eskolatako arduradunek publizitatea saltzea erabaki dute. Iragarleek azaroaren 30ra arteko epea dute espazio horiek erosteko. Prezioa ere finkatuta dago: 69,80 euro, BEZa kanpo. Askotariko iritziak sortu ditu ekimenak. Kontrako iritziak baretu aldera, Barletta probintziako Pompeo Camerok esan du ez dela edozein iragarki onartuko. Zer iruditzen zaizue?

> TERTULIA

Nerabezaroaren gainean Goiena Telebistan egindako tertulia 'guraso.com' webgunean ikusgai

Nerabezaroko gorabeherak, jarrera aldaketak, eskakizunak... gai horiek guztiak izan dituzte hizpide azaroko tertulian Goiena Telebistan. Mahaiaren bueltan izan ziren Aranzadi ikastolako irakasle Yolanda Juaristi, Arrasateko kale-hezitzaile Xabi Elkoroiribe eta Arrats elkarteko kide Jose Mari Larrañaga. Euren esperientziaren berri eman zuten eta bizitzako etapa horren aurrean lasai egoteko aholkatu zuten. Tertulia ikusgai duzue *guraso.com*-en.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
zatoz gure webgunera
guraso.com

> DANBAKA
Lehenengo kontzertuko talde bakoitzaren balorazioa eta argazki onenak **> 30-31**

> IKUSKIZUNA
Jendeak bat egin du X. Nazioarteko Txotxongilo Mostrarekin, Bergaran **> 33**

> AMAIA CAYERO
Euskal Telebistako aurkezle gazteak bere zinezaletasunaz hitz egin digu **> 40**

DANBAKA Lord Witch izan zen egubakoitzeko hirugarren taldea; bergararrekin zoramena iritsi zen Elgetako Espaloia Kafe Antzokira.

JOSETXO ARANTZABAL

Punka, heavya, metala eta elektronika gau berean

Egubakoitzean hasi zen Elgetako Espaloian Danbaka musika lehiaketaren laugarren edizioa

Jarraitzaileak hasieratik taldeen aldamenean egon ziren; lehenengo ilaran dantzan

ARRITXU BARRUSO > ELGETA

Danbakaren laugarren edizioa abian da. Egubakoitzean egin zen Elgetako Espaloia antzokian lehenengo kontzertua; aurten ere maila altuko kontzertuak ikusiko ditugula argi geratu zen.

GAZTETASUNA ETA INDARRA

Black Riverrek estreinatu zuen Danbakaren laugarren edizioko lehen gaua. Formatu akustikoan hasi zuten gaua: abeslaria eta gitarra aulki batean eserita eta balada goxo batekin. Hortik aurrera indartsu jardun zuten. Metal melodikoa egiten dute Black Riverrekoek eta gazteak izan arren sekulako indarra erakutsi zuten. Bigarren abestirako lehenengo ilarara jende mordoxka gerturatzea lortu zuten. Bigarren taldearendako Espaloia berotuta utzi zuten oñatiarrek.

PUNKA BETE-BETEAN

Bergara, Arrasate eta Soraluzetik punk-rock doinuak ekarri zituzten Despreziokoek. Jarraitzaileak hasieratik izan zituzten aldamenean, lehenengo ilaran dantzan. 80ko hamarkadan Euskal Herrian jorratu zen punk-rocka ekarri zuten gogora eta baita doinu ilunagoak ere, siniestroagoak. Hirukotea izanda ere indarra erakutsi zuten: bat-batekotasuna, amorrua eta gaztetasuna. Abesti motzak eta zuzenak egin zituzten, salaketa eta umorea tartekatuz.

JARRAITZAILEAK, ZORATZEN

Gaueko talde beteranoaren txanda etorri zen ondoren: Bergarako Lord Witch. Taula gainera igo baino lehen jarraitzaileak dagoeneko zain zituzten euren taldearen izena oihukatzen. Danbakara aurkezten diren bigarren aldia da eta bergararrak nobedadeekin etorri dira: teklatua gehitu diote taldeari eta abeslari berria dute, orain arteko gitarra eta *frontman*-ari laguntzen. Lord Witchekoek zoramena ekarri zuten Espaloira: lehenengo ilarak jendez lepo eta guztiak kontzertuan zeharo sartuta. Heavy-rock klasikoa egiten duen talde bergararrak argi utzi zuen sekulako eskarmentua duela.

ALEMANIAKO ELEKTRONIKA

Musika elektronikoarekin amaitu zen gaua. Danbakan orain arte entzun gabeko proposamena ekarri zuen La-Toxek, ikusleak Alemaniara eramanaz. Gustura hartu zen nobedadea eta txalo eta animu asko entzun ziren *Txus*-entzat.

IKUSLEAK ETA GIROA

Oñatiar eta bergarar asko Espaloian

Danbakaren laugarren edizioa giro ezin hobearekin hasi da. Egubakoitzean Espaloia jendez bete egin zen hasiera-hasieratik. Oñatiko Black Riverrek eta Bergarako Lord Witchek jarraitzaile asko eraman zituzten Elgetara. Dena dela, besterik gabe, eta Danbakak eskaintzen duen musika ikuskizunaz gozatzera joan zirenak ere asko izan ziren; urteroko jarraitzaileak, Debagoieneko eta inguruko musikaren jarraitzaileak. Lehenengoa izateko ez zen hoztasunik sumatu eta lehenengo kontzertutik jendea dantzan ibili zen lehenengo ilaratan.

BLACK RIVER | Oñati

Adituak esana > Mikel Alvarez
"Nahiko ondo ikusi ditut. Abestiak ondo landuta eta estrukturatuta daudela uste dut. Taula gainean ere eroso ikusi ditut, beharbada kontzertu gehiago ematea falta zaien arren. Euskal Herrian ohikoa den trash-metal edo heavy metala egiten dute ".

Ikusleak esana > Imanol Soriano
"Sekula ikusi gabe neukan taldea da. Egia esan harritu egin nau, lehiaketa bat dela kontuan izanda eta lehenengoak izanda, modu akustikoan hasi direnean; baina gustatu zait hori ere. Ahotsen nahasketa ere asko gustatu zait. Oso biziak dira zuzenekoan. Aurrerantzean jarraitu beharreko talde bat dela uste dut".

Kazetariak esana > Arritxu Barruso
"Lan polita egin dute oñatiarrek. Kontuan izan behar da lehiaketako eta gaueko lehenengo taldea izan dela eta horrek dakarren tentsioa. Oso eroso ikusi ditut taula gainean".

Taldekideak esana > Kepa Alberdi
"Oso pozik gaude. Emateko geneukan dena eman dugu eta jendeak oso ondo erantzun du. Momentu polita izan da, benetan. Oñatitik etorritako jendeari eskerrak eman nahi dizkiot. Jarraitzaileak aldamenean izateak asko motibatzen gaitu. Danbakan parte hartzea zen gure helburua eta lortu dugu. Orain ikusiko dugu zer gertatzen den".

DESPREZIO | Bergara-Arrasate-Soraluze

Adituak esana > Mikel Alvarez
"Punk-rock argi eta garbia egiten dute. Badirudi azkenean ere Danbakan sartu dela punka eta hori gustatzen zait. Gitarra-jotzaileak *bakarkako* asko egiten ditu eta kolore asko ematen die abestiei; hori punkean berritzailea da, beti ere gure ibarrean ohikoa den punketik irten gabe".

Ikusleak esana > Imanol Soriano
"Despreziokoek punkaren garai onenetara eraman gaituzte. Uste dut lehiaketak ematen dituen 30 minutuak oso denbora aproposa dela eurendako. Nabaritzen da oso azkar eta jarraian jotzera ohituta daudela. Abestiak, ohiko moduan, gizartearekin oso kritikoak. Gustatu zait".

Kazetariak esana > Arritxu Barruso
"Kontzertu dibertigarria izan da. Taula gainean disfrutatu egin dute eta hori jendearengana iristea lortu dute. 80ko hamarkadako Euskal Herriko punk gogorra ekarri digute Despreziokoek gaur Elgetako Espaloira.".

Taldekideak esana > 'Manzana'
"Oso gustura egon gara taula gainean. Bero gehiegi zegoen, baina oso ondo. Akats batzuk ere egin ditugu, baina suposatzen dut normala dela. Lagunak gurekin izan ditugu lehenengo ilaran dantzan eta hori ere garrantzitsua da. Garrantzitsuena da oso ondo pasatu dugula. Ikusiko dugu zer gertatzen den".

LORD WITCH | Bergara

Adituak esana > Mikel Alvarez
"Urteak daramatzate taula gainean eta nabaritzen da sekulako eskarmentua dutela. Asko gustatu zait kontzertua. Eszenatokia ondo aprobetxatu dute eta etxeko lanak oso ondo eginda etorri dira: abestiak ondo entseatuta eta dena oso prestatuta. Gainontzeko taldeetan ez dut hauek erakutsi dute eskarmentua ikusi".

Ikusleak esana > Imanol Soriano
"Lord Witch ikustera etorri naiz. Ardoa bezala hauek ere urteekin hobetzen doaz zalantza barik. Bi taldekide berriek gainera, norabide berri bat eman diote taldeari. Jorgek eta *Euge*-k egin duten punteoa asko gustatu zait".

Kazetariak esana > Arritxu Barruso
"Argi geratu da sekulako eskarmentua duen taldea dela. Giro bikaina ipini dute. Espaloia bete egin da eta dantzan ipini dituzte jarraitzaileak. Eszenaratzea oso txukuna izan da eta abestiak eta kontzertua orokorrean ondo prestatuta ekarri dutela argi geratu da".

Taldekideak esana > 'Euge'
"Nekatuta bukatu dut, baina pozik nago eman dugun kontzertuarekin. Jendeak oso ondo erantzun du. Harro egoteko moduan gaude oso jarraitzaile fidelak ditugulako. Danbakara gatozen bigarren aldia da. Guretako sekulako promozioa eta aukera da hemen egotea".

LA-TOX | Bergara

Adituak esana > Mikel Alvarez
"Asko gustatu zait Txus Arriaranen proposamen berria. Kritika txiki bat egitearren, beharbada makinek protagonismo gehiegi dute eta ahotsa faltan igarri dut apur bat. Oso proposamen berritzailea eta interesgarria iruditzen zait. Danbakan originaltasunaren saria egongo balitz, gauzak hemendik joan beharko lirateke".

Ikusleak esana > Imanol Soriano
"Gurean ezohikoa den musika estilo bat egiten dute, baina gustatu zait. Berlingo tekno gauak ekarri dizkit gogora. Eszenaratzea oso berezia izan da eta musikalki ere oso ondo ikusi ditut. Dena dela, akaso experimentalegia".

Kazetariak esana > Arritxu Barruso
"Asko eta askorendako ezezaguna den proposamena ekarri digute La-Tox taldekoek. Danbakan entzun gabe geneukan estiloa da eta gustura hartu dut proposamen berritzailea. Eszenaratzea ere oso kuriosoa izan da. Proposamen ausarta, baina oso interesgarria".

Taldekideak esana > Laida Ballasteros
"Oso pozik gaude eskaini dugun kontzertuarekin eta batez ere ikusleek izan duten erantzunarekin. Uste dugu gustatu zaiela eta oso pozik gaude; ez genuen horrelako harrerarik espero. Kritika gehiago jasoko genituela uste genuen. Oso gustura egon naiz taula gainean".

'Manzana' (Desprezio).

Lord Witchekoek eszenaratze landua eta indartsua erakutsi zuten.

La-Toxeko 'Txus' eta Laida.


Lord Javi.

Black River taldeak ireki zuen gaua.

Lord Witchen jarraitzaileak.


'Porru' (Desprezio).

'Txus' Arriaran.

Desprezioko 'Manzana' eta 'Izu' kontzertuan.

Pana' (Black River).

Maider Arregi

Hasi da burrunba eta zarata!

Danbakako laugarren edizioak berotu ditu motorrak!

Lehenak izotza apurtzen, Oñatiko **Black River**reko *metaleroak*. Zaleen botoei esker sailkatzea lortu dute. Eta zale horiek guztiak, lehenengo ilaran ikusi genituen burua astintzen! ***Txantxikuak*** jarraitzaile fidelak direla nabarmen gelditu zen. Hantxe ikusi genuen **Potemkin**eko **Iban** bateria-jotzailea. Taldearen ibilbidea batzen duen argazki-liburu bat ateratzeko lanetan dabiltzala kontatu zigun.

Danbaka gosez zeuden partaide ohiak ere ikusi genituen Espaloia Antzokian: **Aby-Kem,** Danbaka *dardar* jarri zuen taldeko **Mikel** abeslaria edota **Anal Bag**, **Anger** eta **Little little much** taldeetan diharduen ***Momo.*** Askok, Danbakari esker ezagutu genuen **Little little much** proiektu interesgarria eta berriro elkartu direla jakitea albiste bikaina da benetan! Aipamen berezia, **Desprezioko** bateria-jotzaileari, **Porru**-ri, oinutsik primeran moldatzen delako, eta , emakumezko bakarra delako aurten baterian. **Lord Uge**ren alaba ere aita animatzen! Gau berezia izan zen Ugerendako urteak bete zituen eta oholtza gainean. Zorionak!

Hurrengo kontzertua Azaroak 5

> El Trio Calavera
> Rock Privado
> Front Malabar
> Ymotek

HAN IRITZIA EMAN DIGUTE

Goratze Ojanguren
Elgeta

"Bertakoak izanda askotan etortzen gara Danbakako kontzertuetara. Giroa ikustera etorri gara, Danbakak inguruko herrietako jende gazte asko mugitzen du. Gaua ondo joan da; hasieran lasai samar, baina Lord Witchekoek sekulako giroa ipini dute".

Raul Lozano
Bergara

"Despreziokoak ondo egon dira, punka izateko ondo ikusi ditut. Ni Lord Witch ikustera etorri naiz. Oso ondo ikusi ditut, sekulako maila erakutsi dute eta argi dago profesionalak direla. La-Tox ere asko gustatu zait. 'Txus'-ek beste behin ere harritu gaitu".

Xabier Pascual
Oñati

"Black River taldeko bateria-jotzailea nire lehengusua da eta horregatik etorri naiz. Lan polita egin dute, oso ondo ikusi ditut eta aukerak dituztela uste dut. Desprezioren punka ere ondo egon da eta Lord Witchekoek oso giro ona ipini dute".

Iban Morales
Arrasate

"Urtero etortzen naiz Danbakako kontzertuetara. Lehiaketan parte hartu izan dut, gainera. Aurten ere ondo hasi da lehiaketa, gaur entzun dudan musika gehiegi gustatzen ez zaidan arren. La-Tox asko gustatu zait eta Black Riverrekoak ere ondo egon dira".

Alex Molano
Bergara

"Lord Witch taldea ikustera etorri naiz eta egia esan finalean ikustea gura nituzke. Sekulako maila erakutsi dute. Egiten duten musika ez da batere erraza, baina lan bikaina egin dute. La-Tox ere gustatu zait; desberdina, baina oso interesgarria".

Eraman dotoretasuna
zure etxera

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

IKUSKIZUNAK > X. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO MOSTRA

Txotxongiloen Mostraren magiak krisiaren larritasunak gainditu zituen

Publikoa oso gertukoa izan dela azpimarratu dute antolatzaileek, Taun Taun taldekoek

Ikusmin berezia piztu zuten plazako antzerkitxoek eta kanpoko emanaldiek

Pep Gomezek *Romances de ciego* ikuskizuna egin zuen gaztetxean. J.A

Argazki oinaaaaaaaaaaaa. JOSETXO ARANTZABAL

Helduak, umetuta antzerki-kaxetan. J.A

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Krisiari egotzi beharreko aurrekontu estuasunak fantasiarekin eta ikuskizuna eskaintzeko gogoarekin ordezkatu ditu aurten Nazioarteko Txotxongilo Mostrak; eta bergararrek zein kanpokoek eskertu zuten, izan ere, publiko aldetik oso ondo joan da 10. mostra. Antolatzaileek, Taun Taun antzerki taldekoek, batez ere zapatuko ikuskizunek izandako erantzuna azpimarratu dute: Munibe plaza gainezka jarri zen Alemaniako eta Errusiako The Fifth Wheel taldearen *Cabaré de hilos* ikuskizuna jarraitzeko. Zabalotegi aretoa eta gaztetxea ere bete egin ziren barruko emanaldiak ikusteko.

Antzeko erantzuna izan du Aroztegi aretoko *Fantasías mecánicas-arte y tecnología* delako erakusketak, eta hala izanda, erakusketa epea luzatzea erabaki zuten Taun Taunekoek.

Itsaso Azkarate antolatzailearen esanetan, "oso gertuan" izan dira ikusleak.

"EUTSI EGINGO DIOGU"

Arrakasta handia izan dute ere San Martin plazan, udaletxeko arkupetan ipini zituzten lau *teatrino* edo antzerki-kaxek. Horietan, lagun bat ikusle gisa jartzen zen, entzungailu batzuekin ipuin bat entzuten; eta bestea, antzezle gisa. Azken horrek ez zuen ipuina entzuten, elementuak mugitzeko jarraibide batzuk baizik; hala, oso emaitza dibertigarriak sortzen ziren. "Umeak eta gurasoak txandakatzen ziren, eta umeek kaxa guztietatik pasatu nahi zuten. Magiaz betetako ikuskizuna izan da. Ume batzuek esaten zuten Nintendoa eta Wiia baino hobea zela", esaten du Azkaratek.

Aurtengoa ikusita, Taun Taunekoak indarberrituta irten dira mostra antolatzen jarraitzeko: "Garrantzitsuena antolatzea da, mostrari eustea".

JOSETXO ARANTZABAL

Amaia antzoki handia txiki geratu zen bertsolariak ikusteko

Amaia antzokia, handia izanda ere, txiki geratu zen txapelketa nagusiko bertsolariak ikusteko, atzo arratsalde-ilunkeran; izan ere, jende asko kanpoan geratu zen. Udalbiltzaren aldeko saioa zen, eta auzipetuak ere hantxe izan ziren, bertsolarion eta publikoaren babesa bertatik bertara jasotzen.

Zuzenean, *Goiena.net*-en *streaming* bidez eskaini zuen bertso saioa Goiena Telebistak. Makina bat ikuslek jarraitu zuten.

ZER DIOTE INTXORTA ELKARTEKOEK?

ZER DIO IÑAKI GALDOSEK?

iragarkilaburrak.com

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Abadiño. Pisua salgai, Muntsaratzen. 3 logela handi, 2 komun, sukaldea, egongela handi bat jangelarekin eta balkoi handia. Ganbara. Berriztatua eta berogailuarekin. Bizitzera sartzeko moduan. Negoziatzeko moduko prezioa. 667-88 23 38.

Alegia. Etxea eraikuntzaberrikoa da, 5 urte besterik ez ditu eta oso egoera onean dago. Ezaugarriak: 3 logela, 2 komun (bat logela nagusian), egongela eta sukaldeaz gain, lau balkoi ditu. Argi asko sartzen da egun osoan zehar, komun batek ezik, gela guztiek baitute kanpora begira leihoren bat. Igogailua garajeraino. Garajea aukeran. 609-78 75 51

Arrasate. 54 metro koadro. Bi logela, egongela, sukaldea, komun bat, trastelekua eta igogailua. 667-95 31 09

Ataun. San Martinen eraikin ia berri batean, 100 m2ko etxea salgai. Terraza, patioa, garajea eta trastelekua, 280.000 euro. Deitu: 659-53 50 73

Azkoitia. Etxebizitza salgai Bi logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Dena hornitua. Trastelekua eta igogailua ere baditu. Julio Urkijo kalean. 656-79 55 39

Beasain. Pisu oso zentrikoa Andra Mari kalean. La salle ikastetxea eta dendak metro gutxira.105 m2, 4 logela, 2 bainugela, balkoi eta terraza. Berriberri dago, materialak eta eraikuntza kalitate handikoak. Armairu ta altzariak, berogailua, parketa, sukaldeko elektragailu guztiak, garbigailua. Garaje itxia aukeran. Deitu telefono honetara: 656-73 11 43

Bergara. Artzamendi kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bi ko<Ninguno>mun eta balkoi handia. Eguzkitsua. 656-73 57 74

Durango. Etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldea (jantzita), komuna, berogailua eta despentsa. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Jantzita eta erreformatua. 189.319 euro. 699-40 99 59

Durango. Etxebizitza salgai Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpoaldera ematen du, oso argitsua. Pisu altua, 30 m2-ko terrazarekin. 220.000 euro.696-25 50 83.17:00etatik aurrera deitu.

Durango. Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondo), sukaldea (fagor elektrotresnak eta junkers galdara), gres, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 223.000 euro. Deitu telefono honetara: 607-71 53 53

Etxarri-Aranatz. Etxea errentan edo salgai. Deitu telefono honetara: 654-23 41 02.

Etxarri-Aranatz. Familia bakarra salgai.Praktikan berria eta jantzitakoa. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Bajera, lorategia eta bista ederrak. Prezioa adosteko. 637-53 86 15

Gasteiz. Etxebizitza salgai. Aldabe kalean, 80 m2, 2 logela, egongela (25 m2), sukaldea, bainugela eta trastelekua. Leiho guztiak kalera (hegoalde eta mendebaldera), berriztatua, 4. Pisua igogailua eta guzti. Premiazkoa. 230.000 euro. Deitu telefono honetara: 945-14 55 72 /695-72 52 74

Mañaria. Pisua salgai.90 m2, hiru logela, bi komun, egongela-jangela eta sukalde guztiz jantzia (labe pirolitikoa, bitrozeramika, garbigailu-lehorgailua). Altzariz hornitua. Miradorea eta bista ikusgarriak. 13 m2-ko trastelekua. Eraikinak 15 urte ditu, eta igogailua du. Bizitzera sartzeko prest. 220.000 euro. Aukera oso ona! Deitu telefono honetara: 646-67 50 51

Oñati. Etxaluzen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela-egongela, lau logela, bi bainugela, bi balkoi, ganbara eta garajea. 647-24 80 02

Oñati. Santa Marina plaza inguruan 60 m2ko etxebizitza salgai. Bi logela handi, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. 60 m2ko ganbara, duplexaegiteko aukerarekin. Guztira: 120 metro. Balkoi handia eta oso eguzkitsua. 275.000 euro, negoziagarriak. Deitu telefono honetara: 610-97 04 32

Orio. Donostiatik 10 minutura A-8ko irteera berritik. 100 m2; 2 logela bikoitza eta 32 m2ko saloia, dena haritzezko tarimazabalarekin, sukalde handia, bainugela, terraza eta trasteroa etxean bertan (ikus planoa). Azkeneko solairuan dago eta ganbara handia ere badu (25 m2koa) hurrengo pisuan. 330.000 euro www.etxegoxoa.com. 639-20 27 64.

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com

www.goiena.net-en

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:

- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.

- LOKALA SALDU/ALOKATU.

- GARAJEA SALDU/ALOKATU.

- MOTORRA SALDU/ALOKATU.

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20,50 € (BEZ BARNE).

PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)

MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 21 € (+BEZ).

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 28 € (+BEZ).

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira. GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

102. EROSI

Arrasate. Edo inguruetan 120.000-150.000 euroko etxebizitza erosteko asmoa daukat.615-71 04 68.

103. ERRENTAN EMAN

Altsasu. 3 logela, 2 komuna. Jantzita. Prezio interesgarria.650-44 24 37.

Arrasate. Etxebizitza bat ematen da errentan unibertsitate ondoan. Berokuntza zentrala du. Argitsua. Ekonomikoa. 647-22 09 38 edo 945-44 51 11

Arrasate. Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, gela txiki bat, sukalde-egongela eta komuna. Oso argitsua. Estreinatzeko. 650 euro. 653-95 19 08

Arrasate. Altamiran, Jose Luis Iñarra kalean, hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. 639-96 01 21

Arrasate. Zarugalde kalean etxebizitza ematen da errentan. Sukaldea, egongela, bi komun eta bi logela. Berokuntza eta igogailuarekin. 656-75 00 94

Berriz. Pisu bat errentan eman nahi dut. 3 logela, 90 m2, igogailua eta garajea. Errenta: 600 euro. 94-682 00 41

Etxarri-Aranatz. Pisua alokagai edo salgai.654-23 41 02.

Etxarri-Aranatz. Pisua alokairuan. Jantzita. 3 gela, sukaldea, egongela eta komuna. 636-66 08 76

Etxarri-Aranatz. Pisua alokatzen da. 615-83 40 28

Oñati. 100 m2ko etxebizitza errentan erdigunean. Deitu telefono honetara: 663-69 31 16

Zarautz. Zarautzen pisua alokagai. 3 gela, egongela handia, sukaldea, 2 komun eta igogailua. Oso eguzkitsua. 635-75 37 57 (arratsaldetan)

Zumaia. Erdigunean errentan irailetik ekainera: bi logela, egongela ederra, sukalde konpletua: hozkailu, mikrouhin, ontzigarbigailu ta garbigailua. Berogailua, internet zuntz optiko konexio bizkorra wifirekin, bainugela ta bi komune, terraza bikainaren bueltan elizaldetik portu, santiago hondartzara eta itzurungo labarretarainoko bistak, garaje itxia, igogailua, Itzurun hondartza oinez minutu erdira. Deitu telefono honetara: 656-73 11 43

104. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Edo inguruan etxebizitza bat hartuko nuke errentan. Bi edo hiru logelakoa. 603-62 08 84

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. 617-12 61 44.

Bergara. Neska bergarar euskaldunak etxebizitza txikia (estudioa, ganbara...) hartuko luke errentan. 659-66 02 57

Donostia. Langile oñatiar bat naiz eta irailetik aurrera donostian bizi ahal izateko etxe bila nabil. 675-00 87 58

Durango. Pisua konpartituko nuke beste pertsona batzuekin666-20 22 73

Iurreta. Alokatzeko pisu bila dabilen iurretar neska gaztea naiz. 617-08 49 02

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan. Deitu 18:00etatik aurrera. 943 53 21 62.

Arrasate. Pertsona bat behar dugu Erguinen etxebizitza osatzeko. 670 59 73 62.

Arrasate erdigunean etxea osatzeko pertsona bat behar dugu. Hilean 200 euro, gastuak barne. Iñaki. 608 49 89 93.

Oñati Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan emateko Errekalden. Deitu 18:00etatik aurrera. 653 74 87 51 edo 699 46 76 11.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Oñati. Garaje itxia salgai Arantzazu kaleko 21ean. 18 metro koadro. Deitu telefono honetara: 635 06 24 79.

204. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Alokatzeko garaje bila nabil. Ahal bada, Antigua auzo inguruan. Deitu telefono honetara: 679 31 75 50.

3/ LOKALAK

302. EROSI

Oñati. Lokala erosiko nuke, 25-120 metro koadro bitartekoa. 943 79 66 75.

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Lonja ematen da errentan. 690 95 45 47.

Urretxu. Florida taberna alokairuan dago. 662-24 77 15 arratsaldetan 16:00etatik aurrera.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Andre euskaldun bat behar dugu gure umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Zazpi bat ordu egunean. 688 62 83 86.

Bergara. Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, goizez. 615 76 94 58.

Bergara. Neska bat behar dut pertsona edadetuak zaintzeko baserri baten, neskame. Opor batzuk ordezkatzeko. Hilabete eta erdi. Blanca. 639 43 84 92.

Donostia. Egia auzoan, Donostian, goizeko 7 etatik 9 etara etxeko lanak egin eta haurra eskolara eramateko pertsona baten bila gabiltza. Azaroan hasteko. Eneritz. arkauz@hotmail.com// 696-55 18 27.

SIRIMIRI

Bi urteko esperientziadun neska behar dugu barra eta jangelarako.

943 76 59 19

402. ESKAERAK

Abadiño. Lan bila nabilen matienako andre bat naiz. Edozein ordutegian, arratsaldez eta gauez aukeran. Ume eta nagusien zainketa, etxeen garbiketa... 696-75 35 30

Aretxabaleta. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Feli. 943-53 33 92

Aretxabaleta. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Feli. 943 53 33 92

Arrasate eta inguruan emakumea gertu sukaldari lanetarako. Udan edo asteburuetan. Bost urteko esperientzia. Agu. 679 73 92 66

Arrasate eta inguruko herrietan neska gertu zerbitzari lanetan jarduteko. Esperientziaduna. 680 53 97 54

Arrasate. Asteburu eta jaiegunetan lan egiteko gertu: garbitasun lanak, nagusiak edo umeak zaintzeko... 682 31 97 37

Arrasate. Emakume euskalduna gertu nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 653 70 79 38

Arrasate. Neska euskalduna gertu arratsaldeetan umeak zaintzeko. 615 76 19 82

Arrasate. Neska gertu atariak garbitzeko. 619 87 95 57

Arrasate. Umeak zainduko nituzke. Eskolara bila joateko aukera ere bai. Aisialdi titulua daukat. 661 35 49 28

Arte Argazkiko AP eta Diseinuko goi mailako teknikari titulua eta Artearen Historiako Lizentziatura amaitzen. Hala ere, edozein arlotan lan egiteko prest. 685 73 06 80

Azpeitia. 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. 606-42 64 14

Beasain. Emakumea esperientziduna eta arduratsua lan bila dabil pertsonak zaindu edo etxeko lanak egiteko (etxean bertan bizi izateko / orduka jarduteko) moduan.689-11-02-67

Beasain. Etxekolanetarako emakumea eskaintzen da (ume eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak). Erreferentziak ditut. Deitu 689-07 39 19

Bergara. Emakume arduratsua gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. Deitu telefono honetara: 671 44 81 51

Bergara. Emakume gaztea haurrak zaintzeko gertu. Ordutegi aldetik arazorik ez. Deitu telefono honetara: 673 22 38 00

Bergara. Emakumea gertu goiz eta arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko. 610 34 97 88

Bergara. Esperientziadun emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 665 75 41 32

Bergara. Haurrak zaintzeko gertu nago, orduka zein egun osorako. Esperientzia handia daukat. 686 11 24 66

Bergara. Neska euskalduna gertu 17:00etatik aurrera ume edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Esperientziaduna. Deitu telefono honetara: 699 00 99 08

Bergara. Neska gertu 08:00etatik 10:00etara etxeko lanak egiteko. 943 76 28 12

Berriz. Andre euskaldun bat 3 edo 4 orduz umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. 680-50 95 32 edo 94-622 57 24.

Debagoiena. Emakume bolibiarra haurren zein pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko gertu dago. Garbiketan ere egingo luke lan, orduka. Deitu telefono honetara: 686 33 66 66

Debagoiena. Emakume bolibiarra lan bila dabil, eta edozein motatako lanak egiteko gertu dago. 695 71 27 81

Debagoiena. Emakumea gertu ume zein nagusiak zaintzeko, baita etxeko lanak egiteko ere. 663 65 78 43

Debagoiena. Gazte bolibiarra lan bila dabil, edozertarako gertu. 689 64 32 15

Debagoiena. Arrasate, Aretxabaleta edo Bergaran lan egingo nuke umeak zaintzen, nagusiei laguntzen edo orduka garbiketa lanetan. Deitu eguerdietan 16:00ak arte edo gauetan. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

Debagoiena. Bertako neska esperientziaduna gertu asteburuetan nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

Debagoiena. Edozein lanetarako gertu nengoke. Ordutegi malgua. Beatriz. 610 99 70 46

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu nagusiak zaintzeko. 635 00 58 17

Debagoiena. Emakumea gertu goizetan nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Deitu telefono honetara: 626 78 22 95

Debagoiena. Emakumea gertu nagusi eta umeak zaintzeko

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. /Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
- Masterreka 92 m². 237.399 €.
- Masterreka. 88 m². Igogailuarekin.
- Artekale 40 m². Berritua.
- Irizar pasealekua 70 m². Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Mekolalde 110 m². 90.000 €.
- Osintxu. 70 m². Igogailuarekin. 153.258 €.
- Ibargarai 54 m². Garajearekin.
- Lorentxoko 73 m². Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 m². Prezio ona.
- Matxiategi 65 m². Igogailuarekin.
- Ibarra 47 m². 146.888 €.
- Bolu 96 m². Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m². 154.761 €.
- Aranerreka 80 m². 189.319 €.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Herri Lagunak 52 m². Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan. Aukera ona.

Antzuola:
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m². Oso etxe ona.

Elgeta:
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita.**
- San Roke eta Salbador. Etxe onak.

Soraluze:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m², eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m², oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m².
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
